

2024-2025 IKASTURTEA

MEMORIA TXOSTENA

– Lekeitioko Ikastetxeen eskola kirola eta hezkuntza LEK Elkartea –



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3-4
2. LEK PROGRAMA (2024 URRIA-2025 MAIATZA)	
2.1. LEK PROGRAMAREN ERREPASOA.....	4-11
2.2. KOORDINAZIO LANA ETA EGITURAK.....	12-16
2.3. PARTE-HARTZE DATUAK.....	17-18
2.4. BALORAZIOAK	19-27
2.5. PROPOSAMENAK ETA PROGRAMA 2025-2026 IKASTURTERAKO	27-35
3. HERRI-UDALEKUAK (2025 EKAINA-ABUZTUA)	
3.1. UDALEKUEN PROGRAMA.....	39-41
3.2. KOORDINAZIOA.....	41-42
3.3. PARTE HARTZE DATUAK.....	43-44
3.4. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK 2026 URTERAKO	44-49
4. DIRU-KONTUAK	52
5. AURREKONTUA 2025-2026 IKASTURTERAKO	53

1. SARRERA

Lekeitioko Ikastetxeen eskola-kirola eta hezkuntza LEK elkarteak Lehen Hezkuntzako lehen mailatik laugarren mailara arteko ia 200 ikasle hartzen ditu bere baitan. Parte-hartzaileak Lekeitioko Azkue Natura Ikastolako, Lekeitioko Herri Eskolako eta Amorotoko Herri Eskolako ikasleak dira. Gure helburu nagusia haurrak kirol diziplina ezberdinetan murgiltzea da, euren gaitasunak zein interesak modu askotarikoan gara ditzaten, eta, aldi berean, kirol-klubetan goiztiarregi espezializatzearen joera atzeratzea. Horretarako, ikasturte osoan zehar lankidetzan aritzen gara eskualdeko kirol-klub eta enpresekin, jarduera-programa aberats eta integratzailea osatzeko. Era berean, 2025eko udan bigarren aldiz martxan jarri ditugu Lekeitioko Herri Udalekuak, LH1etik DBH1era arteko ikasleei udako esperientzia hezitzaile eta dibertigarria eskaintzeko xedearekin.

Helburu nagusia aurretik aipatu arren, gure elkarteak euskaran, aniztasunean eta berdintasunean sinesten du; hori dela eta, bideratzen ditugun ekintza nahiz saio guztiak euskaraz dira. Proiektuaren parte diren monitoreak nahiz koordinatzaileak euskaldunak dira, eta euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala dute. Asteburuetako topaketetan, taldeko komunikazioetan (hala nola, WhatsApp bidezkoetan), nahiz bestelako harremanetan, euskara da komunikazio-hizkuntza nagusia; halaber, euskararen erabilera sustatzea gure lan egiteko moduaren oinarrietako bat da. Horretaz gain, euskararen aldeko Lekeitioko dekalogoak sinatu dugu aurten.

Bestalde, berdintasunaren harira, egoera zaugarrian dauden hainbat familia hartzen ditugu gure baitan, eta beharrezkoa den kasuetan kuoten ordainketa murrizten dugu, elkarteak hartzen baitu bere gain gastu horien ardura haur horiek jardueretatik kanpo gera ez daitezten. Aniztasun funtzionala duten ikasleak ere gure programan txertatzen ditugu, bakoitzaren beharretara egokituz; horretarako, hezitzaile egokituak eta programazio berezituak eskaintzen ditugu, hezkuntza inklusiboaren aldeko apustu garbia eginez. Herri Udalekuetan Haszten Elkartearekin elkarlanean hasi gara, inklusioaren arloan gure jarduna aberasteko helburuarekin.

LEK elkartearen jarduera guztiak pertsona orori zuzenduta daude, generoaren araberako inolako bereizkeriarik egin gabe. Horrez gain, gure eskaintza guztia gaitasun anitzeko pertsonentzat diseinatuta dago: jarduerak malguak dira, erritmo ezberdinetara egokitzen dira eta parte-hartzaile bakoitzaren ezaugarri pertsonalak kontuan hartuta antolatzen dira. Hori horrela, LEK elkartearen eguneroko jarduna inklusiboa eta eskuragarria da pertsona guztientzat, bakoitzaren gaitasun fisikoetatik, sozialetatik edo kognitiboetatik harago. Programazioa diseinatzeko orduan, hezitzaileen prestakuntzan eta talde-dinamiken garapenean ere berdintasunaren aldeko ikuspegia txertatuta dago, parte-hartzaile guztiek aukera berdinetan oinarritutako esperientzia positiboa bizi dezaten.

Jarraian jasotzen da, alde batetik, aurtengo LEK programaren memoria (partaidetza datuak, koordinazio-lana, diru-sarrerak eta gastuak, besteak beste), eta, bestetik, Herri Udalekuen egitasmoari dagokion memoria.

2. LEK PROGRAMA (2024 URRIA-2025 MAIATZA)

2.1 LEK PROGRAMAREN ERREPASOA

Lekeitioko Eskola-Kirola (LEK) lehen hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzendutako kirol hastapeneko proiektua da, ikastetxeen, kirol-taldeen eta udalaren arteko adostasun eta elkarlanetik sortua. Egitasmo honen bidez, herriko haurrei jarduera fisikoan eta kirol munduan lehen urratsak emateko aukera egokiena, integralena eta hezitzaileena eskaini nahi zaie, eskola-ordutegitik kanpo.

Horregatik, programaren helburua espezializazio goiztiarra eta lehiakortasun-presioa saihestea da, haurren garapen integrala lehenetsiz. Era berean, jarduera fisikoarekiko harreman positiboa sustatu nahi da, epe luzera bizimodu aktibo eta osasuntsua garatzen laguntzeko.



Lekeitioko kirol-eragileekin elkarlanean osatutako egitasmo honen etorkizuna bermatzeko eta dagokion garrantzia emateko, jarraian aipatzen diren irizpideak hartu dira oinarritzat. Hala ere, irizpide horiek ikasturte bakoitzean berrikusten eta egokitzen joango dira, herriko egoerara eta sortzen diren behar berrietara moldatzeko.

1. LEK ordutegia 16:15etatik 17:45ra da, astelehenetik ostegunera bitartean. Ordutegi horretan LEK programak izango du lehentasuna herriko kirol instalazioetan.

2. Kirol-elkartek LEK programaren ordutegian jarri ahal izango dituzte beraien entrenamendu saioak; hori bai, bat egiten duten egunetan instalazioak partekatu beharko dituzte.
3. LH 1-2 mailakoek astelehenetan eta asteazkenetan izango dute saioa; LH 3-4 mailakoek, berriz, astearteetan eta ostegunetan.
4. Ez da derrigorrezkoa LEK proiektuan izena ematea; hala ere, ahalik eta ikasle gehienen parte hartzea bultzatuko da.
5. Kiroldagiko igeriketa eta ballet jardueretan LH1, LH2, LH3 eta LH4ko ikasleek izena eman ahalko dute, LEK programan izena eman duten ala ez kontuan hartu gabe.
6. Musika eskolako arduradunekin nolabaiteko oinarrizko paktu bat dago astelehenetik ostegunerako LH 1-2-3-4 mailen ordutegiak zaintzeko; hau da, musika eta LEK proiektua bat ez egiteko.
7. Kirol-elkartetara salto egiteko adin-maila LH 5 izango dela zehaztu da.
8. LEK proiektuan izena ematen duten LH 3-4 mailako ikasleek aukera izango dute herriko kirol-eskolan aritzeko; gehienez bi kirol-eskola eta astean egun bat gehienez bakoitzean. Jarraian dagoen taulan agertzen dira laburbilduta egunak zein ordutegiak:

KIROL-ESKOLA	ORDUTEGIA	EGUNA
Igeriketa	16:30-17:30	Astelehena
Xakea	18:00-19:00	Asteartea
Atletismoa	16:30-17:30	Ostirala
Futbola	16:30-18:00	Ostirala
Euskal pilota	16:30-17:20	Asteazkena

9. LEKen izena ematen dutenek 180€ko urteko kuota ordaindu beharko dute (2 seme/alaba 270€ eta 3 seme/alaba 330€). Ordainketa hori transferentzia bidez eta behin (urrian) edo bi zatitan (urria-otsaila) egin dezakete familiek.

10. LH 3-4 mailetan kirol-eskoletan parte hartu nahi dutenek 40€-ko urteko kuota ordaindu beharko dute kirol-eskola bakoitzeko (transferentzia bidez urrian). Kuota hori LEK Elkarteak jaso, eta, gero, klubei bideratuko zaie.
11. LEK saioetan erabiltzen den ia kirol-material guztia ikastetxeetako da. LEK Elkarteak erosten duen materiala ikastetxeetan gordeko da, eta bertako ikasleek gorputz-hezkuntzako saioetan erabiltzeko aukera izango dute.



12. LEK programan parte hartzen duten kirol-taldeek faktura bat aurkeztuko dute LH 4. mailako saioak aurrera ateratzeko erabili dituzten monitoreen orduak justifikatzeko. LEK Elkarteak orduko eta monitoreko 12€ ordainduko ditu.
13. Inguruko herrietako umeek LEK programan parte hartu ahal izateko, beraien partaidetzak ezin izango du eragin negatiborik izan beraien herrietako kirol-eskaintzan. Gainera, gurasoak arduratuko dira Lekeitiorako joan-etorriekin, eta hurrek 16:15ean egon beharko dute aurretik adostutako ikastetxean.
14. Asteburuko LEK topaketak batez ere igande goizetan egingo dira, Aldundiko atletismo, duatloi txikia eta hondartza-boleibola izan ezik (zapatu goizetan izaten dira). Hori gertatzen denean, Etorkizuna Dantza Taldekoak abisatu beharko dira aldeztatik (zapatu goizetan dantza-saioa izaten dutelako).

15. Ez da derrigorrezkoa asteburuko topaketetan parte hartzea; hori bai, ahalik eta parte hartze handiena bilatzen da. Aldundiak antolatzen dituen topaketetara behartuta gaude gutxiengo ikasle kopurua eramatera.



Saioen antolaketari eta egiturari dagokionez, gurasoen eta begiraleen balorazioetan oinarrituta, iazko ordutegia, programa erdua eta saio estruktura mantendu ditugu aurten ere:

- Ordutegia hurrengoak izan da: **16:15** ikasleak geletan jaso, **16:15-16:25** merienda tarte, **16:25-16:40** saio izango den tokira ibilbidea, **16:40-17:45** saioa, **17:45** gurasoak jaso.

- Kirol jarduera bakoitza bi astetan eta lau saioetan lantzen jarraitu dugu, jarduera bera lantzeko denbora eta progresio egokia zaintzeko. LH 4 mailakoek 6 saio izan dute kirol bakoitzeko (kirol-elkarteekin horrela erabaki delako).
- La saio gehienak aurretik prestatuta eta idatzita egoten dira. Saioetan hasierako unea, ezagutza eraikitzeko unea eta agurraren unea bereizten jarraitu dugu.



SAIOA

Orientazioa 2

HELBURUAK

1. Espazioa antzematen ikastea: errealitatea plano edo mapa batean irudikatu eta
2. Mapa baten laguntzarekin ibilbide ezberdinak egitea maparekiko kokapen egoki talde txikian.

SAIOAREN DESKRIBAPENA

1. Begirale bat herri eskolako ikasleak hartu eta ikastolara eraman. Beste begirale egongo da.
2. Gauzak uzteko txokoa aukeratu eta merienda gunea aukeratu.
3. Ikastolako frontoia eta patioan egingo dugu saioa (batez ere frontoian).
4. Materiala karroetan aterako dugu. Karro bat babesean, beste bat kaskoekin erabiliko da.

MATERIALA

Konoak, mapak, animalien eta zenbakien fitxak, ibilbide ikasle erregistroa

SAIOA HASI AURREKO TARTERAKO ARGIBIDEAK

1. 16:10etan ikastetxe bakoitzeko geletara igoko gara ikasleen bila. Tutoreekin irakasleekin partekatu asistentzia zerrenda eta errepara ikasle guztiak daude izena eman gabe dagoen ikasle baten bat animatzea. Horrela bada, koordinatzailearekin komentatu.
2. 16:15etan gelatik patioa jaitsi ikasleak eta ikastetxe bakoitzaren hasiera guneratu portxeo guneratu eta aukeratu eta ikastolan frontoiko gradetako gune bat (10-15 m-ko eremua). Bertan jarriko dugu merienda uzteko kutxa bat eta gurasoek bertan seme alaben merienda poltsak.
3. 16:15-16:35 merienda jateko eta LEK saioa gunera joateko ibilbide tartea. denboraz heltzeko LEK saioa gunera. Eman 5min. merienda ateratzeko eta jateko jarri gabe, laguntza eman, beraiekin hitz egin. Gogoratu beraiantzat atsedean irten eta LEK saiora). Ibilbidea egin behar duzuenok ikasleak, uneoro, konoak arautegia zainduz eta merienda jaten bitartean.
4. 16:30-16:35 ikasleen motxilak, arropak eta karpetak erabakitako gunean ukitzeko hasiera guneratu, ikastolan 1-2 aldageletan, kiroldegian frontoiko edo zelaietan armaletan eta atletismo pistan aldageletan edo pistako gune baten.

HASIERA
UNEA
5 min


a) Borobilean lurrean eserita hasiko gara (saio gunean).

- Ongi etorria eman ikasleei eta unitate berriaren informazio guztia azalduko diegu: zer egingo dugun, non, noizekin...
- Errepara 16:10-16:35 arteko errutina eta LEK saioan zehar zaindu behar diren jarraibideak: Komuneko tartea zaindu (borobilean jarri aurretik edo jolas batekin bestera baina beti baimena eskatuz, elkarbizitza arauak, ezin dute saio utzi eta alde egin, urduri-haserre-beldur garenean lasai gunea erabili dezakegula (erabaki gune bat) edo ikasle laguntzaile izan ahal direla aipatu ere.
- Bukatzeko, gaurko saioan egingo dugunaren laburpen txiki bat egin (jarduerak, kirolak).

1. BINAKA IBILBIDEA OSATZEA 30min.


- Plazako gunean konoekin osatutako ibilbideak egingo dituzte ikasleek binaka. Irakasleak fitxa plastifikatutako baten konoak ditu errepresentatuta (36 kono). Ikasle bikote batek ibilbide bat margotzen dute "Velleda" errotuladore batekin (gero klinex batekin borrotatu daiteke) eta beste bikote bati ematen diote ibilbi hori benetan egiteko. Ikusi azalpen bideoa:

<https://www.youtube.com/watch?v=iPSoFZ5qMV0>



2. BINAKA IBILBIDEA OSATZEA 30min.

- Plazako gunean konoekin osatutako ibilbideak egingo dituzte ikasleek binaka. Irakasleak fitxa plastifikatutako baten konoak ditu errepresentatuta (36 kono). Kasu honetan txarteltxo bat hartuta ibilbidean dauden txinoen azpiko animaliak gogoratu behar dituzte. Binaka edo taldeka egin daiteke. Ikusi azalpen bideoa:



AGURRAREN
UNEA
5 min

a) Borobilean eserita bukatuko dugu.

- Material guztia jasotzen laguntzeko esan ikasleei.
- Ondo pasatu duten galdetu ikasleei.
- Gertaeren bat komenta nahi duenari tartea eskaini.
- Hurrengo saioaren inguruan aipamena egin.

b) Aldageletara edo hasiera txokora lagundu ikasleei.

- Beraien gauza guztiak hartu dituztela ziurtatu.
- Gurasoak zain dauden gunera eraman eta ziurtatu familiarren bat dagoela.
- Seniderik ez duenari geratzeko esan eta gurasoari telefonoz deitu.

- LH 1., 2. eta 3. mailetako saioak LEK Elkartek kontratatutako monitoreek gidatuko dituzte. LH 4. mailako saioen ardura, berriz, kirol-elkarteen esku egongo da: materialaren prestaketa, monitorea lotzea, aurreprestaketak eta saioen amaieran materiala jasotzea. Saio horiek LEKeko koordinatzailearekin adostuta eta kontratatuta planifikatuko dira.
- Herriko zein inguruko hurbileko kirol, aditu eta aisialdi enpresek gure programan parte hartzeko ahalegina egin dugu aurten ere (zirkoa, eskalada, piragua, Arragua...).
- Umeek ahalik eta esperientzia motore gehienak garatzeko programa bi etapatan banatzen da, bakoitza bere edukiekin eta helburuekin:
 - ❖ **LH 1-2 etapa.** Jarduera fisiko eta jolasen bidez, umearen garapen motorean, kognitiboan, afektiboan eta sozialean eragin positiboa bilatzea eta horiek lantzea.
 - ❖ **LH 3-4 etapa.** Garapen motorean eta afektiboan eragin positiboa bilatzeaz gain, kirol hastapenera eta herriko kirol eskaintzara sarrera egokia bermatzea.



Aste barruko saioez gain, asteburuko jolas- eta kirol-topaketek ere garrantzi handia dute LEK egitasmoan. Ohiko lehiaketa eredutik aldenduz, topaketa hauek ikasleak, gurasoak, monitorea eta herriko kirol-elkartek batzen dituen topagune bihurtzea dute helburu. Topaketak aste barruan landu den kirol edo ekintza bati lotuta antolatzen dira.

Laburbilduz, bi motatako topaketak bereizten dira: alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutakoak, non parte hartzeagatik diru-laguntza jasotzen den; eta, bestetik, LEK elkartek herriko kirol-eragileekin prestatutakoak eta antolatutakoak, eta, horietako batzuetan, luntx batekin amaitzen da topaketa.

Aurtengo topaketan inguruko ondorioak eta partaidetza-datuak hurrengo lerroetan eta taulan laburbiltzen dira:

- Aldundiak antolatzen dituen topaketetan parte hartzeak bere abantailak ditu: ume bakoitzak bere eskola-kirol aseguruua lortzen du, eta parte hartzeagatik diru-laguntzak jasotzen dira.
- Aldundiko topaketetan izena ematen denean, derrigorrezkoa izaten da ondoren parte hartzea. Hala ere, familiek oraindik ez dute hori ez behar bezala ulertzen, ez balioan jartzen. Askok galdetegiak betetzen dituzte, baina koordinatzaileei ezer jakinarazi gabe ez dira topaketetara agertzen. Kontuan izan behar da topaketek, oro har, antolaketa handia eskatzen dutela, eta horretarako konpromisoa ezinbestekoa dela.
- Aldundiak herritik kanpo antolatutako topaketetara ume zein guraso gutxi animatzen dira, autobusa LEK Elkartek ordaintzen duen arren. Horren ondorioz, bi topaketa bertan behera geratu dira: Heziki Mundakan eta Bermeon. Hurrengo urtera begira, topaketa horiek ezin direla “galdu” ondorioztatu dugu; hortaz, familia gehiago animatzen saiatuko gara.
- Akarregi Euskal Pilota Elkarteari esker, Aldundiak Euskal Pilotako topaketak Lekeition antolatu ditu.
- Aurten, lehen aldiz, Sasikoipetsu mendi-irteera antolatu da. Ekimen horren helburua bi ikastetxeen baliabideak eta guraso-taldean inplikazioa baliatzea izan da, jarduera elkarlanean antolatzeko; halaber, jardunaldiari amaiera emateko, plazan jai-giroko ekitaldia antolatu da, eta LEK Elkartearentzat dirua biltzeko txoznak jarri dira. Hala ere, egindako balorazioa ez da hasieran aurreikusitakoa izan. Izan ere, ikastetxeetako gurasoen parte-hartzea oso mugatua izan da antolaketa-lanetan, eta horrek LEK Elkarteko begiraleek lan-karga bikoiztu behar izatea eragin du. Egoera hori kontuan hartuta, datorren urtean topaketa ez errepikatzea erabaki da. Bestalde, parte-hartze handiagoa espero zenez, hasieran edari-kutxa ugari ireki ziren; ondoren, ordea, soberakina bueltatzeko aukerarik ez zen izan. Hala eta guztiz ere, balantze ekonomikoa positiboa izan da, zati handi batean begiraleek azken unean antolatutako zozketa-txartelei esker. Oro har, egindako ahalegina eta inbertitutako lan-karga kontuan hartuta —batez ere begiraleen aldetik—, eta ikastetxeen partetik jasotako laguntza urria aintzat hartuta, topaketa antolatzeak ez duela merezi izan ondorioztatu dugu.
- Beharrezkotzat jotzen da kirol-elkartek eta udalak antolatzen dituzten ekimenak neurri handiagoan aprobeztatzea, baita horiek LEK Elkartearen egutegian txertatzea ere.
- Aurten, topaketak ez dira hasi otsailera arte; ondorioz, urritik abendura bitarteko eguraldi onak eskaintzen zituen aukerak galdu dira, bereziki mendi-irteerak antolatzeko. Hurrengo urtera begira, ikasturtean zehar zenbait mendi-irteera antolatzea erabaki da, LEK Elkartearen izaerarekin bat datozen jarduerak direla uste dugulako.

DATA	TOPAKETA	MAILA	TOKIA	ANTOLATZAILEA	PARTAIDETZA	BALORAZIOA
OTS 2	FAMILIAN KIROLA	LH 1-2	LEKEITION	LEK ELKARTEA	*50 ume *47 senide	*Partaidetza ederra *Giro bikaina, bukaeran luntxa
OTS 2	HERRIKIROLA	LH 3-4	GERNIKAN	ALDUNDIA	*30 ume	*Partaidetza ederra *Giro bikaina
OTS 8	ATLETISMOA	LH 3-4	LEKEITIO	ALDUNDIA	*44 ume	*Partaidetza bikaina
MAR 2	SASIKOIPETSU	LH 1-2-3-4	LEKEITIO	LEK ELKARTEA	*100 ume	*Eguraldi ederra *310 pertsona guztira *Mendi ibilbide laburra-luzea eta bukaeran plazan txosnak *Lan gehiegi monitorea eta gutxi gurasoak
MAR 9	HERRIKIROLA	LH 3-4	MARKINAN	ALDUNDIA	*22 ume	*Partaidetza ona *Giro bikaina
MAR 15	EUSKAL PILOTA	LH 3-4	LEKEITION	ALDUNDIA	*42 ume	*Partaidetza ederra *Giro bikaina, bikain antolatuta
API 5	DUATLOIA	LH 3-4	LEKEITION	ALDUNDIA GARRRAITZ	*8 ume	*Partaidetza txikia *Giro bikaina, bikain antolatuta
API 26	BIZIKLETA	LH 1-2-3-4	LEKEITIO	LEK	*58 ume-guraso	*Partaidetza txikia *Giro bikaina, bikain antolatuta *Bukaeran luntxa
EKA 1	ARRAUNA	LH 1-2	LEKEITIO	LEK ISUNTZA	*60 ume-guraso	*Partaidetza ederra *Eguraldi bikaina *Bukaeran luntxa
EKA 1	BIGSUP	LH 3-4	LEKEITIO	LEK URTANTAK DZANGA	*60 ume-guraso	*Partaidetza ederra *Eguraldi bikaina *Bukaeran luntxa



2.2 KOORDINAZIO LANA ETA EGITURAK

LEK ikastetxeetako kirol-hastapeneko herri-proiektua da, udalaren babesarekin, bitartekaritzarekin eta baliabide material nahiz pertsonalekin lagunduta. Hala ere, ikastetxeek izan behar dute proiektuaren protagonista eta bermatzaile nagusiak, horrela jasotzen baita LEK proiektuaren txosten nagusian.

Azken urteotan, ordea, koordinazio-lana argitzen eta hobetzen joan den heinean, ikastetxeen inplikazioa gutxitzen joan da. Herriko proiektu bihurtu izanaren aitzakiaz, LEK koordinatzaileen esku utzi dituzte lan eta ardura guztiak.

Gauzak horrela, koordinazio-lanetan aritu garenok argi dugu —eta azkenaldian hala eskatzen ibili gara— LEK proiektuaren etorkizuna ziurtatzeko ezinbestekoak izango direla honako hauek:

- Alde batetik, ikastetxeek argi izatea zeintzuk diren beren betebeharrak eta konpromisoak, eta proiektua hezkuntza-proiektuaren parte dela ulertzea.
- Bestetik, LEK Elkartea kudeaketa- eta koordinazio-lanetarako erakunde aktibo bat izatea, zuzendaritza-talde sendo eta konprometituarekin, kideak eta ardurak lau urtez behin berrituz.

The image shows two website screenshots. The top one is for 'Lekeitioko Herri Eskola' with a navigation menu including 'PROIEKTUAK' and 'LEK IKASGUNA' (circled in green). The bottom one is for 'AZKUA' with a navigation menu including 'Proiektuak' and a grid of images showing children climbing, kayaking, and cycling.

Eskola Kirola **tresna garrantzitsua** da pertsonak bere **osotasunean** hezteko

Helburu hori lortu nahian, koordinatzaileok ikastetxeetako klaustroetan aurkeztu genituen gure kezka eta proposamenak ikasturte hasieran. Bertan, LEK proiektuaren bilakaera eta helburuak azaldu genituen, eta irakasle-taldearekin partekatu genituen etorkizunerako erronkak. Eztabaida nahiz lanketa horien ondorioz, ikastetxeen konpromiso-dekalogoak sortu da, LEK kirol-hastapeneko proiektuan ekarpen handiagoa egin dezaten.

Bi ikastetxeen artean hartutako erabakiak:

- Lek programa aurrera eramateko behar diren baliabideak jarri:
 - Espazioak eta materiala
 - LEK saioen arduradun bat ikastetxean arratsaldeko 15.00-18.00.
- LEK proiektuari lekua egin ikastetxeko foroetan:
 - Hezkuntza eta kirol proiektuetan txertatuko da.
 - Irakasle klaustroetan LEK programaren berri emango da ikasturte hasierako klaustroan.
 - Irailean gurasoekin egiten diren batzarretan ikastetxe proiektu gisa aurkeztuko tutoreek.
 - Ekainean HH5ko bileran, LEK proiektua aurkeztuko dugu ikastetxeko begirale erreferenteak eta ikastetxeko langile ordezkariak.
 - Triptiko edo bideo bat sortuko dugu HH5eko gurasoei matrikulazioa azaltzeko. Modu honetara gurasoen partetik ere autonomia bilatu nahi da.
 - Eskolak kirolaren inguruan antolatzen diren hitzaldi eta formazioetan parte hartuko dugu.
- LEK programan inskribatzen laguntza eman:
 - Tutoreek laguntza behar duten familiei lagunduko die, ikastetxeko begirale erreferentearekin batera.
 - Ikasgeletan edo irakasle gelan LEKeko programazioa bistan jarrita izango dugu.
- Egoera eta ezaugarri bereziak dituzten ikasle eta familien informazio trukea:
 - Urrian, ikastetxeko begirale erreferenteak eta ikastetxeko ordezkariak bilera bat egingo dute ikasleen koordinazioa egiteko. Aurrera begira, begiraleak edo ordezkariak behar izanez gero bilera eskatuko du. Bilera egunak, astearte arratsaldeak izango dira 16.30etatik 17.45 bitarte.
- LEK proiektuaren inguruan antolatzen diren batzordeetan parte hartu: hezkuntza batzordean eta Udal LEK batzordean.

LEK Elkarteari dagokionez, esan daiteke gaur egun ez dagoela aktibatuta. Dirudienez, kontratazioak egin ahal izateko eta Aldundiarekin harremana izan zein laguntzak jasotzeko sortu ziren estatuetan amaitu zuen bere ibilbidea.

Koordinazio-lanetan gabiltzanok argi dugu erakunde aktiboa izan behar dela, eta lan-taldea ikastetxeetako guraso-elkarteetako kideekin osatu beharko litzatekeela. Egoera horrek koordinatzaileen lan-karga handitzen du, eta, aldi berean, ikastetxeen konpromisoak eta erantzukizunak murrizten ditu. Gai horri heltzen ez badiogu, epe ertainean proiektuaren bideragarritasunean eragina izango du, zalantzarik gabe.

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGE ARAUBIDEA

1. artikulua.- Irabazi asmorik gabeko

LEKEITIOKO IKASTETXEEN ESKOLA KIROLA ETA HEZKUNTZA LEK ELKARTEA

izeneko elkarteak eratu da, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorriz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartearen **HELBURUAK** honako hauek dira:

1*Kirol eta jarduera fisikoaren ikaskuntza oinarri izanda, Lekeitioko haurren heziketa integrala bultzatzea; haurren garapen motorra, kognitiboa, sozial eta afektiboa osotasunean ulerturik.


2* Lekeitioko eta ingurune hurbileko haurrei trebetasun eta gaitasun motor anitzen eskaintza zabala jasotzeko aukera eskaintzea, euskarazkoa izango dena, ikuspegi hezitzailea, inklusiboa eta hezikidetzatzailea duena, osasun ohitura osasuntsuen sustapena eta joko eta jolasaren bitartez euskal kulturaren transmisioa ere gidalerro izango dituen.

3*Herritarrak eta bertako eragile ezberdinek eskola kiroleko hezkuntza proiektu bateragarria izatea eta elkarlanean aritzea dagoen kirol sistemari aukera hezitzaileagoa eskainiaz lehen hezkuntzako lehenengo etapen eta hurrengo etapetarako haurrak prestatuz.

4*Eskola kiroleko programan antolatutako egoera motor ezberdinen lanketa egitea, bakarkako, buruz buruzko, kolaboraziozko, oposizio eta kolaboraziozko, ziur eta ziurgabetasunezko egoerak eta adierazpenezko ekintzak barne hartzen dituen eta kirol ohitura osasuntsuak bultzatzen dituen.


5* Ludikotasuna eta gozamen oinarri dituen antolatutako programaren bitartez, balioen hezkuntza bultzatzea besteak beste errespetua, ardura, autoestimua, autonomia, hobetzeko sena, konpromisoa, lankidetzatzailea, elkartasuna, onarpena bezalako balioak biltzen dituen eta kirola eta jarduera fisikoaren egiteko zaletasuna sustatzen dituen.

6*Lehen hezkuntzako 1.go eta 2. mailen garapena jolasen bitartez egituratzea eta LH 3. Eta 4. Mailetan modu progresiboan herrian eskaintzen diren kirol jardueretara sarrera egin eta hauen ezagutza maila areagotzea.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2ZK2-6GS3 bilagailua erabiltza, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egotza elektronikoki honetan: <https://euskadi.eus/okalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2ZK2-6GS3 en la sede electrónica <https://euskadi.eus/localizador>




Koordinazio-lanari dagokionez, bi koordinatzaile daude: LEK Elkarteak kontratatutako koordinatzailea (astean 15 ordu) eta Udaleko Kirol Saileko LEK koordinatzailea. Programa aurrera ateratzeko eta kudeaketa-lan guztiak burutzeko bi pertsona horiek arduratzen dira (hurrengo irudietan agertzen dira beraien eginkizunak laburbilduta).


UDAL KIROL ZERBITZUETAKO LEK KOORDINATZAILEA	
LAN ESPARRUA	FUNTZIOAK
Prestaketa lanak	Urteko programa-egutegia zehaztu eta lotu (mailako eta hileko egutegiak)
	Kirol enpresekin egingo diren jardueren aurrekontua eta egutegia lotu.
	Kirol elkarteekin egingo diren saioen baliabideak argitu eta egutegia lotu.
	Erabiliko diren instalazioak aurreikusi, eskatu eta egutegia dokumentua osatu.
	Monitoreen lan-poltsa eguneratu eta lan-taldea osatu.
	Aurrekontua prestatu.
	LEK programan izena emateko deialdia egin (idatzia, inprimakia...) eta ikastetxeetara bideratu.
	Aldundiko programan ikasleak inskribatu, babes-protokoloa eguneratu eta igo.
Koordinazioa	Asteburuko topaketen egutegia prestatu.
	Hileko LEK saioen plangintza erregistroa osatzen lagundu.
	Hilero diru-kontuen errepasoa egin: kuotak, gastuak, aurrekontua zaindu.
	Izayfer Asesoriarekin koordinatu altak-bajak komunikatzeko eta nominak eskatzeko
	Hilero nominen transferentziak egin Caixabank-eko aplikaziotik.
	Diru-laguntzen deialdiak zaindu eta eskaerak bideratu.
	Kirol materialaren berri izan eta erosketak baimendu.
Komunikazioa	Saioetako gertaeren berri izan eta erabakietan parte hartu.
	Asteburuko topaketen prestaketetan lagundu.
Batzordeak	WEB orria egunean izaten lagundu.
	DRIVE karpeta egunean izaten lagundu.
	Guraso batzar eta hitzaldien prestaketetan lagundu.
Balorazioak	Herriko kirol, hezkuntza eta LEK batzordeetan parte hartu.
	Programan parte hartzen duten kirol taldeekin koordinazio-mahaia bideratu.
	LEK batzordeko eta kirol taldeen koordinazio-mahaiko deialdiak/aktak prestatu eta komunikatu.
Balorazioak	Kirol elkarte, monitore eta gurasoen balorazioak jasotzeko lanean lagundu (batzarrak, Google inprimakia).
	LEK programaren memoria prestatu (abendua orduko).

LEK ELKARTEKO KOORDINATZAILEA	
LAN ESPARRUA	FUNTZIOAK
Izen-emateak	Izen-emateen jarraipena eraman: zerrendak eta web orriko taldekatzeak egunean izan.
	Taldeak osatu ikastetxeetako LEK ordezkariarekin eta monitoreen laguntzarekin.
	TELEGRAM taldeak osatu familiekin eta oinarriko informazioa bidali.
	Aldundiko programan ikasle berriak inskribatzen lagundu: BAQK, familien diploma...
Koordinazioa	Ikastetxeetako kirol gelatik egin koordinazio lana:
	*Ikastolan 15:00-16:30 prestaketa guztia.
	*Saioen jarraipen lana eta gurasoei harrera 16:30-18:00: Ikastolan astelehen-ostegunetan eta Herri Eskolan astearte-asteazkenetan.
	Saioen koordinazioa eraman: jarduerak, instalazioak, materiala, monitoreen banaketa, kirol-taldeak, kirol-enpresak, eguraldia, saioen egitura eta monitoreen funtzioak.
	Gurasoekin etengabeko komunikazioa TELEGRAM, telefonoz eta aurrez aurre (oharrak, aldaketak, zalantzak, gertaerak).
	Saioetako gertakarien berri izan, bideratu eta gurasoak, tutoreak nahiz Udala koordinatzailea jakinean ipini (errespetu faltak, asistentzia faltak, ezbeharrak...).
	Monitoreen lan-poltsa, bajak/altak egunean izan DRIVE karpetan.
Komunikazioa	Kirol materialaren ardura eta jarraipena eraman.
	Asteburuko topaketen prestaketa eta antolaketa lana.
	LEK saio eta topaketen argazkiak/bideoak jaso, aukeratu eta WEB orrian sartu.
	WEB orria, sare sozialak eta DRIVE karpeta egunean izaten lagundu.
Batzarrak	Ikastetxeetako LEK informazio txokoak egunean izan.
	Guraso batzarretan eta hitzaldietan lagundu.
	Monitoreekin jarraipen batzarrak prestatu eta bideratu (iraila-abendua-ekaina).
Balorazioak	Udal kirol zerbitzuetako LEK koordinatzailearekin koordinazioa astero.
	LEK batzordeetan parte hartu.
	Ikasle, monitore eta gurasoen balorazioak jasotzen lagundu (batzarrak, Google inprimakia).
	Memoria prestatzen lagundu.

Bestalde, LEK proiektuaren jarraipen-ardura eta sor daitezkeen proposamenak aztertzeko ardura duen lan-taldeari LEK Batzordea deitzen diogu. Aurten ere hilean behin bildu gara, baina proposamen berririk edo arazorik agertu ezean, hurrengo ikasturtean 3 aldiz biltzea proposatuko dugu (irudian batzordearen osaketa eta funtzioak agertzen dira).



Koordinazio- eta jarraipen-egiturekin amaitzeko, LEK programan parte hartzen duten kirol-klubekin osatutako lan-taldea aipatu behar dugu. Bertan, kirol-talde bakoitzak noiz eta nola antolatuko dituen saioak eta topaketak aztertzen dira, batez ere. Horrez gain, herriko kirol-ibilbidean hartu nahi diren erabakiak eztabaidatzeko gune aproposa da (irudian Lekeitioko kirol-ibilbidearen zirriborro posible bat agertzen da).



2.3 PARTE-HARTZE DATUAK

LEK programa bere osotasunean garatu den bigarren ikasturtea izan da (LH 1-2-3-4 mailak). Guztira, 190 ikasle eman dute izena (1. taula), aurreko ikasturtean baino 35 ikasle gehiagok.

1.TAULA: PARTE HARTZE DATUAK GUZTIRA ETA IKASTETXEKO						
IKASTETXEA	MAILAK				EHUNEKOAK	
	LH 1	LH 2	LH 3	LH 4		
HERRI ESKOLA	21	22	18	27	88 ikasle	% 46,5
IKASTOLA	34	12	22	23	91 ikasle	% 47,9
AMOROTO	4	6	1	0	11 ikasle	% 5,9
GUZTIRA	59	40	41	50	190 ikasle	

Parte-hartze datuak ikastetxeka eta mailaka aztertuta (2. taula), alde batetik, azpimarratzekoa da LH1 mailetan parte-hartzea oso handia izan dela (herri-eskolako ikasleen %91k eta ikastolako %100ek eman dute izena); eta, bestetik, bi ikastetxeen arteko parte-hartze ehunekoak pixkanaka parekatzen ari direla. Adin tarte horretako herriko biztanleriari dagokionez, Lekeition guztira 225 haur daude LH 1-2-3-4 mailetan, eta horietatik 179k parte hartu dute 2024-2025 ikasturteko LEK programan (%80). Ondorioz, 46 haurrek ez dute programan parte hartu.

2.TAULA: LEKEITION PARTE HARTZE OROKORRA, MAILAKA ETA IKASTETXEKO					
IKASTETXEA	MAILA	IKASLEAK GUZTIRA	LEK PROIEKTUAN	PORTZENTAIA	LABURPENA
HERRI ESKOLA	LH 1	23	21	%91	118 ikasletik 88 LEKen %74,5
	LH 2	34	22	%65	
	LH 3	26	18	%69	
	LH 4	35	27	%77	
IKASTOLA	LH 1	34	34	%100	107 ikasletik 91 LEKen %85
	LH 2	17	12	%71	
	LH 3	25	22	%88	
	LH 4	31	23	%74	
GUZTIRA LEKEITION	LH 1-2-3-4	225 ume Lekeition	179 ikasle LEKen		%79,5 LEKen dabil

Parte-hartze datuen azterketari amaiera emateko, izena eman duten neska eta mutilen kopuruak aztertu dira (3. taula). Bi ikastetxeetako datuak eta datu orokorrak alderatuta, nesken parte-hartzea %47koa dela ondorioztatu da (aurreko ikasturtean baino %12 handiagoa). Mutilen parte-hartzea handiagoa bada ere (%53), alde hori pixkanaka murrizten ari dela antzematen da.

Herriko adin tarte horretako biztanleriari dagokionez, 105 nesketatik 83k parte hartzen dute (%79). Mutilen kasuan, berriz, herrian 120 izanik, 96k parte hartzen dute LEK programan (%80).

3.TAULA: NESKA-MUTIL ALDERATZE DATUAK GUZTIRA ETA IKASTETXEKO							
IKASTETXEA	MAILA	IKASLEAK GUZTIRA	NESKAK		MUTILAK		LABURPENA
			GUZTIRA	LEK	GUZTIRA	LEK	
HERRI ESKOLA	LH 1	23	10	10	13	11	43 ume LEKen 20 neskak (%46,5)
	LH 2	34	14	10	20	12	
	LH 3	26	15	10	11	8	45 ume LEKen 21 neska (%47)
	LH 4	35	15	11	20	16	
IKASTOLA	LH 1	34	21	21	13	13	46 ikasletik 27 neskak (%59)
	LH 2	17	9	6	8	6	45 ikasletik 15 neskak (%33,5)
	LH 3	25	12	10	13	12	
	LH 4	31	9	5	22	18	
GUZTIRA LEKEITION	LH 1-2-3-4	225 ume Lekeition	Guztira herriko neskak 105 (%79)		Guztira herriko mutilak 120 (%80)		LEK neskak guztira 83 (%46,5)



2.4 BALORAZIOAK

laz bezala, LEK programak izan duen harrera aztertu nahi izan dugu, familiei zuzendutako balorazio-galdetegiaren bidez, baita umeen, begirale-hezitzaileen eta herriko kirol elkarten ekarpenak jasoz ere.

Datu hauek ikasturte amaieran jaso baditugu ere, ikasturtean zehar familiek aukera izan dute LEK koordinatzaileengana jotzeko eta beren kezka nahiz proposamenak adierazteko.

Bestalde, begirale-hezitzaileekin eta herriko kirol-elkarteeekin bi hilean behin balorazio-bilerak egin ditugu, programaren garapena aztertzeko, beharrezko egokitzapenak adosteko eta proiektuaren irizpideak pixkanaka osatzen joateko.

Jarraian, laburbilduta, bileretan eta galdetegiaren bidez jasotako balorazio eta ekarpen nagusiak aurkezten dira:

1. LEK programan parte hartzen duten kirol taldeekin egindako balorazio batzarrean jasotakoak:

- 2025-2026 ikasturterako aurtengo programaren antzekoa egitea.
- LEK Elkarteak herriko hezkuntza eta kirol-batzordeetan parte hartzea.
- Herri Eskolan arduradun bat edo koordinatzaile bat egotea 16:00etatik 18:00ak arte lanak errazteko: materiala, instalazioak, azken orduko aldaketak, argiak, komunak, giltzak, materiala gordetzeko lekuren bat izatea, eta baita gurasoen zalantzak aurrez aurre argitu ahal izateko ere.
- Kirol-taldeetara doazen LH 3-4 mailako ikasleen jarraipena eramateko Drive karpeta beraiekin partekatzea.
- LH 4. mailan saioak emateagatik jasotzen duten ordainsaria handitzea, monitore bakoitzeko orduko 14 eurora egokituz.
- LH 3-4 mailatan kirol-eskoletan aritzeko jarri diren LEK irizpideak egoki ikusten dituzte.

2. Begirale-hezitzaileekin egindako balorazio batzarrean jasotakoak:

2.1 Ikastetxeekin dugun harremana atala.

2.1.1 Ikasleen izaerak, ezaugarriak eta beharizanen inguruan:

- Ikasleen inguruko informazio eza aipatzen dute; ezinbestekoa da tutoreek ahalik eta datu gehien helaraztea LEK hezitzaileei: norbait gaixorik badago, ikasleren batek desapuntatu nahi badu, ikasleen arteko haserreak...
- Ondo legoke 2025-2026 ikasturtean LEK hezitzaileak tutoreekin batzea hiruhilabete bakoitzean, behintzat talde bakoitzeko erreferentziazko begiralea. Bilera horretan ikasle bakoitzaren jarraipena egingo litzateke, bakoitzaren jarrera, harremanak eta beharizanak kontuan hartuta.
- Alde handia antzeman dute ikastolako eta eskolako ikasleen artean, batez ere errespetuari eta jarrerari dagokienez. Oro har, Amortoko eta Herri Eskolako ikasleen jarrera bikaina izan da.

2.1.2 Ikastetxeen materiala eta instalazioen inguruan hobetu beharrekoak:

- Euria egiten duenean, ikastolako frontoian gurasoak eta ikasleak biltzen dira; nahiz eta gure saioak bertan egiteko lehentasuna izan, zailtasunak sortzen dira jarduerak normaltasunez garatzeko, zarata handia eta jende pilaketa direla medio.

2.1.3 Ikasleak hartzeko eta bukaeran gurasoei emateko tarteen hobekuntza atalean:

- LH 1-2 mailako ikasleak 16:15etan geletan batzerakoan ahal den neurrian ikasleak prest egotea eskatzen dute begiraleek, LEKeko ikasleak eta gainerakoak ilaretan banatuta.
- Irakasleek ordua zaintzea, eta, ikasleren bat denbora gehiagoz gelan gelditu behar izanez gero, tutoreek LEK hezitzaileak abisatzea.

2.2 LEK programa eta saioen inguruan hobetzeko atala.

2.2.1 Programatutako jolas, jarduera eta kirolen inguruan hobetzekoak:

- Bertoko-jolasak banatu egin beharko zirela adierazi dute monitoreek; adibidez, natura-jolasen hasieran sar daitezke jolas modura. Hurrengo ikasturterako pilota-jolasen nahiz natura-jolasen fitxak berridatziko ditugula adostu dugu.
- Munduko-jolasen saioak nahiko astunak egiten direla aipatu zuten begiraleek, eta, hurrengo urtera begira, saio-kopurua murriztea erabaki da.
- Gorputz-adierazpena saioak hurrengo ikasturterako beste norbaitekin lotu beharko dira. Txiki-fitness saioen fitxak egin behar dira jolas eta ariketa gehiagorekin, baita material gehiago ere (TRX adibidez).
- Kontuan izan behar dugu ikastolako ikasle askok aurten gorputz hezkuntzako eta LEKeko saioetan jarduera berdinak egin dituztela egun berean, eskalada eta igeriketa, besteak beste.
- Programan ez dauden zenbait kirol aipatu dituzte hezitzaileek, ahal izanez gero programan sartzeko: eskubaloia, waterpolo...

2.2.2 Saioetan kirolen araberrako monitore hezitzaileen mugimenduak (talde batetik bestera) direla eta:

- Begirale adituak mugitzea ondo ikusten da (saioen kalitatea bermatzeko), beti ere, taldeko monitore erreferente bat gelditzen baldin bada.
- Igeriketako saioetan, bakoitza bere taldearekin joatea eskatu dute hezitzaileek, bestela, urtero legez, zenbait monitoren igeriketako saio gehiago egiten dituztelako.
- Aldaketak ematen direnean, aurretik, monitoren taldean abisua ematea (azken orduko bajak direnean batez ere).
- Goizero-goizero, Driven egon arren, koordinatzaileak antolaketa WhatsApp taldera bidaltzea eskatu dute begiraleek.

2.2.3 Saioaren egituraren inguruan ezer aldatzeko ikusten bada atalean:

- 2025-2026 ikasturtean saioetan ikasle-taldea bitan banatzea zaindu behar dugu, ariketa gehienak horretarako diseinatuta baitaude. Horrela, ikasleek gutxiago itxaron beharko dute, eta haserreak saihestu daitezke.
- Jardueren denborak hobeto zaintzea ikusten da, saioa osotasunean lantzeko. Sarritan lehenengo jolasek denbora gehiago hartzen dute, batez ere LH1eko ikasleekin. Ikasleen irteera-ordua errespetatzea ezinbestekoa da, izan ere, askok ondoren beste jarduera batzuk dituzte.
- Ondo legoke noizean behin hezitzaileek ikasleekin batera programa errepatatuko balute; adibidez, ekintzaren bat bukatzean beraiekin komentatu, eta hobetu beharrekoak edo jasotako informazioa koordinatzaileari helarazi.

2.3 Beste gai batzuen eztabaida atala.

2.3.1 LEK Drive karpeta eta informazio kortxoaren atalean:

- 17:45-18:00 tartea zaindu egin behar da asistentzia-orriak eta gertaera-orria betetzeko. Nahiz eta garrantzia gutxidun gertaeraren bat izan, beti koordinatzaileari jakinarazi, gertakarien gainean egoteko, eta, behar izanez gero, gurasoekin harremanetan jarri ahal izateko. Hobe da gertatutakoa egun berean komentatzea, egunek aurrera egin ahala garrantzia galtzen baitu.
- Drive-n karpeta eta kortxoan dagoen informazioa oso baliagarria dela aipatzen dute.

2.3.2 Nominen eta ordainketen inguruan:

- Aurten nominak bakoitzari Whatsapp bidez edo inprimatuta banatu zaizkie. Nominak bidaltzeko era hau ongi ikusten dute begiraleek.

3. Familien asebetetze galdetegian jasotakoak:

Familien asebetetze-galdetegian jasotako erantzunak aztertu ondoren, ondorioztatzen da galdetegia bete duten familien gehiengoak oso balorazio positiboa egin duela 2024-2025 ikasturteko LEK programaren inguruan. Guztira 85 familiak erantzun dute, eta, oro har, adierazi dute seme-alabak gustura egon direla LEK saioetan.


Era berean, balorazio baikorra egin dute eskola-kirolaren garapenaz, begiraleen jardunaz eta taldekideen arteko harremanez, eta inguruko senideei ere programa honetan parte hartzea gomendatuko lieketela nabarmendu dute. Halaber, koordinatzaileengandik jasotako informazioa egokitzat jo dute, eta beraiekin izandako harremana, bai telefonoz bai aurrez aurrekoa, egokia izan dela azpimarratu dute.

Proposamenei dagokienez, gehien errepikatu den eskaera LH5 mailan ere eskola-kirola eskaintzea izan da; hortaz, hurrengo ikasturterako kontuan hartzeko helburu gisa planteatzen da.

Ondoren agertzen diren irudietan laburbilduta jasotzen dira aipatutako emaitzak.


1. Adierazi zure seme/alabaren maila. *Indique el curso de su hija/o.

85 erantzun




2. Nire seme/alaba pozik joan da eskola kirolera. *Mi hija/o ha asistido contento al deporte escolar.

85 erantzun




3. Proposatutako jolas eta kirolekin gustora ibili da. *Mi hija/o ha participado motivado en los juegos y deportes programados.

85 erantzun




4. Bere taldeko kideekin harreman ona izan du. *Mi hija/o ha tenido una buena relación con los integrantes de su grupo de deporte escolar.

85 erantzun




5. Monitore hezitzaileekin gustora ibili da (hurbilak izan dira eta laguntza behar izan duenean eskaini diote). *Mi hijo/a ha estado a gusto con los monito... y le han ofrecido ayuda cuando lo ha necesitado).

85 erantzun




6. Eskola kiroleko programa erakargarria eta egokia izan da adin hauetako umeentzat. *Ha sido un programa de deporte escolar atractivo y adecuado para niñas/os de estas edades.

84 erantzun




7. Animatuko zenuke senideren bat Lekeitioko eskola kirol programan izena ematera? *Animarías a algún amigo o familiar a apuntarse al programa de deporte escolar de Lekeitio.

85 erantzun




8. Eskola kiroleko informazioa bidaltzeko, zalantzak argitzeko eta gertaeren inguruan hitz egiteko gurasoekin izandako komunikazioa eta harremana ego...ipciones, darse de alta en la Diputación, etc.).


85 erantzun




9. Eskola kirolaren web orria (lekeitiokoeskolakirola.org) informazioa, albisteak edo argazkiak eskuragarri izateko erabilgarria da? * ¿La página we...do a la información, a las noticias o fotografías?
82 erantzun



10. Nola baloratzen duzue LEK programan izena eman duten LH 3-4 mailetako ikasleek herriko kirol taldeetan parte hartzeko aukera eduki izana? (gehi...eportivos y una sesión semanal por club deportivo)
74 erantzun



11. Aurten LEK programa bukatzen duen LH 4 mailako ikaslea bazara, datorren ikasturtean zein kirol ibilbide aukeratuko duzun argi daukazu? * Si eres un...itinerario deportivo vas a elegir el próximo curso?
61 erantzun



12. Beste edozer aipatzeko edo adierazteko erabili tarte hau. *Utilice este espacio para comentar o expresar sensaciones y propuestas.

33 erantzun

Web orria ez dut askorik erabili. Horregatik ez diot erantzunik eman horri buruzko galderari.

Baita futbola ere

Mi hijo ha recibido apoyo durante el programa y ha sido muy positivo para su participación

Txabik erantzunak dira geuk irakurrita

Todo positivo y sería una opción para nosotros totalmente adecuada que se ampliara la oferta para Lh5 y lh6

Aurten LH3n egon diren ikasleen taldeak antolatzeke moduari datorren urtean buelta bat emango nioke. Ez diot zentzu gehiegirik hartu alde batetik dena ikastolako neskak eta eskoletako mutilak eta alderantziz. Helburuen artean elkar ezagutza baldin badago, denen arteko nahasketa orokorra izan beharko litzateke eta ez sinpleki aurten egin den bezala. Datorren urtera begira kontutan izango duzuelakoan. Eskerrik asko!

PD: 11.galderan datorren urtean LH4.mailan egongo diren ikasleen erantzun lekua falta da.

Eskerrik asko egiten duzuen lanagatik. Programazioa zabala eta erakargarria da eta batez ere, monitoreok umeengan jartzen duzuen arrera, errespetua eta ematen duzuen konfiantza eskertzekoa da

Eskalada ikastaroak umeentzako. Hurbileko herrietan itxaron-zerrendak dagoz.

Bikain....10 bat danontzako!

Eskerrik asko egindako lanagatik! Hurrengo ikasturterarte!

Azkenengo topaketan ez zen itxaron denok plazara iritsiarte argazkia ateratzeko "gainera Mirenei arduradunari abisatu zitzaion denok ez geundela eta hala ere, argazkia atera zen! Eta gainera jaten asteko ere ez zitzaion itxaron azkena zetorren taldeari. Guraso modura errespetu falta dela iruditzen zaigu.

Lh 5 ean eskola kirola balego, jarraituko genuke. Bestalde, eskerrik asko egindako lanagatik

Eskerrikasko danagatik

Herriko ikastetxeetako umeak elkar ezagutzeko aukera bikaina da LEK, baina LH3 kasuan ikastetxe bateko neskak beste ikastetxeke mutilekin nahastea ez da erabakirik egokiena izan nire iritziz; oraindik ere, pena baldin bada ere, neskak neskekin ibiltzen dira eta mutilak mutilekin. Datorren urtera begira ikastetxe bateko talde mixtoa beste ikastetxeke talde mixtoarekin elkartuko nuke nik.

Begiraleei eta koordinatzaileari eskerrik asko egindako lan bikainagatik.

Nire ustez LH5 ean ere jarraitu beharko luke. Zoriondu nahi dizuet egin duzuen lanagatik !! Segi horrela

LEK aparteko kiroletan apuntatu nahi izan eskero, aukera gutxi ordutegiagatik. Adibidez tximista eta futbola, egun eta ordutegi berdiña. LEKeko alde positiboa, lagun berriak egitea eta izan dugun ambiente/momentu onak.

Eskerrik asko, lan ona egin duzue, pozik egon gara

Aurten gehiena herri eskolan egin dute. Ongi legoke herriko leku ezberdinetan egiteko aukera gehiago balego. Zapaterito, kiroldegia, parkea, hondartza...

Aurreko galderan kirol bakarra aukeratu daiteke, baina, futbolaz gain, datorren urtean isuntza arraun elkartean ere apuntatuko da semea.
Bestalde, ikasturtean zehar egin duzuen lanagatik zoriondu eta eskerrak emateko aprobetxatzen dut. Uda ona pasa!!!

Eskola kirola amaitzean, Lekeitioko kirol elkarteek LH5era begira, gurasoei, kirol elkarten informazioa (nola izena eman, entrenamentuak noiz, funtzionamendua,...) ez ematearen hutsunea nabaritu dugu.
Lekeitialde agertzen da, baina guk deitu genuen eta esan ziguten ez dagoela talderik. Orain taldea dago? Eta beste taldeen inguruan oso gutxi dakigu eta dakigun apurra galdetuta izan da.
Interesgarria izango litzateke ekainean kirol elkarten informazioa jasotzea.
Eskerrik asko

Uretako jolas gehixao 🤪🤪🤪

Ostiraletako futbol taldean monitoreen presentzia eskatuko nuke, eta urtean zehar ikasturte erdi aldera beste inkesta bat

Eskerrik asko egiten duzuen lanagatik. Programazioa zabala eta erakargarria da eta batez ere, monitoreok umeengan jartzen duzuen arrera, errespetua eta ematen duzuen konfiantza eskertzekoa da

Eskalada ikastaroak umeentzako. Hurbileko herrietan itxaron-zerrendak dagoz.

Bikain....10 bat danontzako!

Eskerrik asko egindako lanagatik! Hurrengo ikasturterarte!

Azkenengo topaketan ez zen itxaron denok plazara iritsiarte argazkia ateratzeko "gainera Mirenei arduradunari abisatu zitzaion denok ez geundela eta hala ere, argazkia atera zen! Eta gainera jaten asteko ere ez zitzaion itxaron azkena zetorren taldeari.
Guraso modura errespetu falta dela iruditzen zaigu.

Umea oso gustura ibili da ikasturte osoan, monitoreekin oso harreman ona izan duela adierazi du.
Gure aldetik aipatzeko gauza bakarra taldeen banaketari buruzkoa da, agian banaketa beste era batera egitea planteatu daitekeela uste dugu, ikastetxe desberdinetako neska ta mutilak nahastuago egoteko, baina orokorrean oso ondo egon dira.
Eskerrik asko!

Eskerrik asko por el labor vuestro

6. Puntuari ezin da 5 bat jarri.
Dana ezin jake gusta, baina proposatutakoa oso ondo!!

Quiero destacar que los monitores y coordinadores siempre estan a disposición y atentos excelente trabajo y agradecer la paciencia que tienen con los Padres de fuera con el idioma cuando nos perdemos un poco nos indican este año en particular mi hija Antonella Benítez se ha animado mucho mas sacando sus miedos y pidiendo ella misma participar en algunas de las actividades es un logro personal de la cuál estoy muy agradecida como madre hasta el próximo año

Oso ondo dago eskola kirola, baina uste dut 3. mailatik aurrera ez zela derrigorrezkoa izan behar. Umeek beraien gustokoa den kirola aukeratzeko askatasuna izan beharko zuten.

Uste dut amaierako uretako ekintzarako hobeto eongo litzatekeela 2 txanda antolatzea: batzuk 11etan eta besteak 12etan. Batez ere ordubete itxaroten ez egoteko umeak. Gainontzekoa primeran egon da: ZORIONAK eta ESKERRIK ASKO!

Me parece que en LH5 aún son muy jóvenes para tener que decidirse en realizar durante todo el año un único deporte, sobre todo los que no tienen claro que hacer
Agradezco que se esté , por lo menos, valorando el continuar con el proyecto y alargar más allá de LH4. Ojalá que siga adelante
Un saludo y gracias a tod@s por vuestro gran trabajo

2.5 PROGRAMA ETA PROPOSAMENAK 2025-2026 IKASTURTERAKO

Azken atal honetan, datorren ikasturterako LEK proiektuak beharko dituen egokitzapenak, aurrekontua, egutegia eta kirol programa proposatzen dira. Kontuan izan behar da aurreikuspen bat dela, eta irailean parte-hartze datuekin osatu eta zehaztu beharko dela.

Azken bi urteetan LEK Elkarteak kontratatutako koordinatzailea Udal LEK Koordinatzaile izatera pasatu da beste zereginen artean; aldaketa horrek, eta azken hiru urteetako ibilbideak, agerian utzi dute LEK proiektua aurrera ateratzeko lanean diharduten agenteen ardurak eta funtzioak zehaztu eta argitzeko beharra. Besteak beste, honako alderdiak landu beharko dira epe laburrean:

- Zer da LEK Elkartea, nortzuk osatu behar dute eta zein funtzio bete?
- Zeintzuk dira ikastetxeek bete behar dituzten funtzioak eta ardurak proiektuarekiko?
- Zein batzordean eta nola landu behar dira LEK programarako irizpideak?

Programari dagokionez, aurten Arraguarekin elkarlanean garatutako gorputz-adierazpeneko saioak ez dira datorren ikasturtean errepikatuko, ez baitituzte espero ziren emaitzak eman. Horren ordez, bestelako alternatibak aztertzea proposatzen da; hala nola, dantza eta gorputz adierazpenean aditua den Ikerne Mendietari saio horiek bideratzeko aukera luzatzea.

Bestalde, LH3. mailako zirkuko saioak Txitatoki Zirku Eskolarekin elkarlanean antolatzen ziren, eta esperientzia oso positiboa izan bada ere, hurrengo ikasturtean ez dute zerbitzu hori eskainiko. Ondorioz, jarduera horien ordezko eskaintza egokia aurkitzea zaila izango dela aurreikusten da, eskualdean ez dagoelako antzeko zerbitzua eskaintzen duten elkarterik edo enpresarik.

Begirale-taldeari dagokionez, ikasturte hasieran behintzat, antzeko lan-taldea aurreikusten da, nahiz eta egun batetik bestera kide asko hezkuntza arloan lanean hasiko diren.

Hurrengo ikasturtean landu beharreko gai nagusiak:

- LEK Batzordearen baliagarritasuna berrikustea. Informazioa partekatzeaz harago, beharrezkoa da gaien inguruko hausnarketa sustatuko duen eta proposamenak lantzea ahalbidetuko duen metodologia egoki bat garatzea.
- Udaleko kirol zerbitzuen (kiroldegiaren) eskaintza berrikustea, bereziki adin tarte horretako haurrei eta HH mailetakoei zuzendutakoa (balleta, dantza sortzailea, txiki-erritmoa, jazz-funkya, igeriketa), egungo beharrianetara hobeto egokitzeko.
- LEK proiektua HH 4-5 mailetara zabaltzeko aukera aztertzea, eta, era berean, LH 5-6 mailetako ikasleei zuzendutako eskaintza birpentsatzea. Testuinguru honetan, egokia litzateke 4-16 urte bitarteko haur eta gazteen kirol-ibilbidea definitzen hastea.
- LEK topaketen eta asteburuetan udalaren ekimenez auzolanean antolatzen den aisialdi-eskaintzaren arteko lotura aztertzea, bi eremuen artean koherentzia eta osagarritasuna bermatzeko.

Hona hemen hurrengo ikasturteko egutegiak eta programak mailaka:



LEK PROGRAMA 2025-2026 LH 1 maila

1. Lau-hilabetea			LH 1A taldea		LH 1B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRIA	1.astea	Ira 29	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		1	Elkar ezagutza jolasak	Ikastolan	Elkar ezagutza jolasak	Ikastolan
	2.astea	6	Skate	Herri Eskolan	Herri-kirolak	Ikastolan
		8	Skate	Herri Eskolan	Herri-kirolak	Ikastolan
	3.astea	13	Skate	Herri Eskolan	Herri-kirolak	Ikastolan
		15	Skate	Herri Eskolan	Herri-kirolak	Ikastolan
	4.astea	20	Herri-kirolak	Ikastolan	Skate	Herri Eskolan
		22	Herri-kirolak	Ikastolan	Skate	Herri Eskolan
	5.astea	27	Herri-kirolak	Ikastolan	Skate	Herri Eskolan
		29	Herri-kirolak	Ikastolan	Skate	Herri Eskolan
AZAROA	1.astea	3	Psikomotrizitate	Herri Eskolan	Baloi jolasak	Ikastolan
		5	Psikomotrizitate	Herri Eskolan	Baloi jolasak	Ikastolan
	2.astea	10	Psikomotrizitate	Herri Eskolan	Baloi jolasak	Ikastolan
		12	Psikomotrizitate	Herri Eskolan	Baloi jolasak	Ikastolan
	3.astea	17	Baloi jolasak	Ikastolan	Psikomotrizitate	Herri Eskolan
		19	Baloi jolasak	Ikastolan	Psikomotrizitate	Herri Eskolan
	4.astea	24	Baloi jolasak	Ikastolan	Psikomotrizitate	Herri Eskolan
		26	Baloi jolasak	Ikastolan	Psikomotrizitate	Herri Eskolan
ABENDUA	1.astea	1	Adierazpena	Ikastolan	Mahai jokoak	Ikastolan
		3	Adierazpena	Ikastolan	Mahai jokoak	Ikastolan
	2.astea	8	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		10	Adierazpena	Ikastolan	Yoga	Ikastolan
	3.astea	15	Mahai jokoak	Ikastolan	Yoga	Ikastolan
		17	Mahai jokoak	Ikastolan	Yoga	Ikastolan
URTARRILA	1.astea	5	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		7	Igeriketa	Trinketen	Txiki fitness	Ikastolan
	2.astea	12	Igeriketa	Trinketen	Txiki fitness	Ikastolan
		14	Igeriketa	Trinketen	Txiki fitness	Ikastolan
	3.astea	19	Igeriketa	Trinketen	Txiki fitness	Ikastolan
		21	Txiki fitness	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
	4.astea	26	Txiki fitness	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		28	Txiki fitness	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen

LEK PROGRAMA 2025-2026

LH 1 maila

2. Lau-hilabetea			LH 1A taldea		LH 1B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.astea	2	Txiki fitness	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		4	Pilota jolasak	Ikastolan	Bertoko jolasak	Herri Eskolan
	2.astea	9	Pilota jolasak	Ikastolan	Bertoko jolasak	Herri Eskolan
		11	Pilota jolasak	Ikastolan	Bertoko jolasak	Herri Eskolan
	3.astea	16	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		18	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
	4.astea	23	Pilota jolasak	Ikastolan	Bertoko jolasak	Herri Eskolan
		25	Bertoko jolasak	Herri Eskolan	Pilota jolasak	Ikastolan
MARTXOA	1.astea	2	Bertoko jolasak	Herri Eskolan	Pilota jolasak	Ikastolan
		4	Bertoko jolasak	Herri Eskolan	Pilota jolasak	Ikastolan
	2.astea	9	Bertoko jolasak	Herri Eskolan	Pilota jolasak	Ikastolan
		11	Yoga	Herri Eskola IT	Adierazpena	Herri Eskolan
	3.astea	16	Yoga	Herri Eskola IT	Adierazpena	Herri Eskolan
		18	Yoga	Herri Eskola IT	Adierazpena	Herri Eskolan
	4.astea	23	Bizikleta	Herri Eskolan	Orientazioa	Plazan
		25	Bizikleta	Herri Eskolan	Orientazioa	Plazan
APIRILA	1.astea	13	Bizikleta	Herri Eskolan	Orientazioa	Plazan
		15	Bizikleta	Herri Eskolan	Orientazioa	Plazan
	2.astea	20	Orientazioa	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
		22	Orientazioa	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
	5.astea	27	Orientazioa	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
		29	Orientazioa	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
MAIATZA	1.astea	4	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
		6	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
	2.astea	11	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
		13	Arrauna	Plazan	Naturan jolasak	Plazan
	3.astea	18	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
		20	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
	4.astea	25	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan
		27	Naturan jolasak	Plazan	Arrauna	Plazan

LEK PROGRAMA 2025-2026

LH 2 maila

1. Lau-hilabetea			LH 2A taldea		LH 2B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRRIA	1.astea	Ira 29	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		1	Elkar ezagutza jolasak	Herri Eskolan	Elkar ezagutza jolasak	Herri Eskolan
	2.astea	6	Eskalada	Ikastolan	Hondartzan jolasak	Plazan
		8	Eskalada	Ikastolan	Hondartzan jolasak	Plazan
	3.astea	13	Eskalada	Ikastolan	Hondartzan jolasak	Plazan
		15	Eskalada	Kiroldegian	Hondartzan jolasak	Plazan
	4.astea	20	Hondartzan jolasak	Plazan	Eskalada	Ikastolan
		22	Hondartzan jolasak	Plazan	Eskalada	Ikastolan
	5.astea	27	Hondartzan jolasak	Plazan	Eskalada	Ikastolan
		29	Hondartzan jolasak	Plazan	Eskalada	Ikastolan
AZAROA	1.astea	3	Patinak	Herri Eskolan	Igeriketa	Trinketen
		5	Patinak	Herri Eskolan	Igeriketa	Trinketen
	2.astea	10	Patinak	Herri Eskolan	Igeriketa	Trinketen
		12	Patinak	Herri Eskolan	Igeriketa	Trinketen
	3.astea	17	Igeriketa	Trinketen	Patinak	Herri Eskolan
		19	Igeriketa	Trinketen	Patinak	Herri Eskolan
	4.astea	24	Igeriketa	Trinketen	Patinak	Herri Eskolan
		26	Igeriketa	Trinketen	Patinak	Herri Eskolan
ABENDUA	1.astea	1	Xake	Herri Eskolan	Euskal dantzak	Herri Eskolan
		3	Xake	Herri Eskolan	Euskal dantzak	Herri Eskolan
	2.astea	8	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		10	Xake	Herri Eskolan	Euskal dantzak	Herri Eskolan
	3.astea	15	Euskal dantzak	Herri Eskolan	Xake	Herri Eskolan
		17	Euskal dantzak	Herri Eskolan	Xake	Herri Eskolan
URTARRILA	1.astea	5	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		7	Euskal dantzak	Herri Eskolan	Xake	Herri Eskolan
	2.astea	12	Baloi jolasak	Herri Eskolan IT	Pilota jolasak	Kiroldegian
		14	Baloi jolasak	Herri Eskolan IT	Pilota jolasak	Kiroldegian
	3.astea	19	Baloi jolasak	Herri Eskolan IT	Pilota jolasak	Kiroldegian
		21	Baloi jolasak	Herri Eskolan IT	Pilota jolasak	Kiroldegian
	4.astea	26	Pilota jolasak	Kiroldegian	Baloi jolasak	Herri Eskolan IT
		28	Pilota jolasak	Kiroldegian	Baloi jolasak	Herri Eskolan IT

LEK PROGRAMA 2025-2026

LH 2 maila

2. Lau-hilabetea			LH 2A taldea		LH 2B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.astea	2	Pilota jolasak	Kiroldegian	Baloi jolasak	Herri Eskolan IT
		4	Pilota jolasak	Kiroldegian	Baloi jolasak	Herri Eskolan IT
	2.astea	9	Txiki fitness	Herri Eskolan IT	Adierazpena	Ikastolan
		11	Txiki fitness	Herri Eskolan IT	Adierazpena	Ikastolan
	3.astea	16	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		18	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
	4.astea	23	Txiki fitness	Herri Eskolan IT	Adierazpena	Ikastolan
		25	Txiki fitness	Herri Eskolan IT	Adierazpena	Ikastolan
MARTXOA	1.astea	2	Adierazpena	Ikastolan	Txiki fitness	Herri Eskolan IT
		4	Adierazpena	Ikastolan	Txiki fitness	Herri Eskolan IT
	2.astea	9	Adierazpena	Ikastolan	Txiki fitness	Herri Eskolan IT
		11	Adierazpena	Ikastolan	Txiki fitness	Herri Eskolan IT
	3.astea	16	Munduko jolasak	Ikastolan	Akrobaziak	Ikastolan
		18	Munduko jolasak	Ikastolan	Akrobaziak	Ikastolan
	4.astea	23	Munduko jolasak	Ikastolan	Akrobaziak	Ikastolan
		25	Akrobaziak	Ikastolan	Munduko jolasak	Ikastolan
APIRILA	1.astea	13	Akrobaziak	Ikastolan	Munduko jolasak	Ikastolan
		15	Akrobaziak	Ikastolan	Munduko jolasak	Ikastolan
	2.astea	20	Elkarlan jolasak 1	Ikastolan	Elkarlan jolasak 2	Herri Eskolan
		22	Elkarlan jolasak 1	Ikastolan	Elkarlan jolasak 2	Herri Eskolan
	5.astea	27	Elkarlan jolasak 2	Herri Eskolan	Elkarlan jolasak 1	Ikastolan
		29	Elkarlan jolasak 2	Herri Eskolan	Elkarlan jolasak 1	Ikastolan
MAIATZA	1.astea	4	Piragua	San Pedropean	Bizikleta	Herri Eskolan
		6	Piragua	San Pedropean	Bizikleta	Herri Eskolan
	2.astea	11	Piragua	San Pedropean	Bizikleta	Herri Eskolan
		13	Piragua	San Pedropean	Bizikleta	Herri Eskolan
	3.astea	18	Bizikleta	Herri Eskolan	Piragua	San Pedropean
		20	Bizikleta	Herri Eskolan	Piragua	San Pedropean
	4.astea	25	Bizikleta	Herri Eskolan	Piragua	San Pedropean
		27	Bizikleta	Herri Eskolan	Piragua	San Pedropean

LEK PROGRAMA 2025-2026

LH 3 maila

1. Lau-hilabetea			LH 3A taldea		LH 3B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRIA	1.astea	Ira 30	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		2	Elkar ezagutza jolasak	Plazan	Elkar ezagutza jolasak	Plazan
	2.astea	7	Skate	Herri Eskolan	Atletismoa	Larrotegin
		9	Skate	Herri Eskolan	Atletismoa	Larrotegin
	3.astea	14	Skate	Herri Eskolan	Atletismoa	Larrotegin
		16	Skate	Herri Eskolan	Atletismoa	Larrotegin
	4.astea	21	Atletismoa	Larrotegin	Skate	Herri Eskolan
		23	Atletismoa	Larrotegin	Skate	Herri Eskolan
	5.astea	28	Atletismoa	Larrotegin	Skate	Herri Eskolan
		30	Atletismoa	Larrotegin	Skate	Herri Eskolan
AZAROA	1.astea	4	Futbola	Larrotegin	Soka saltoa	Ikastolan
		6	Futbola	Larrotegin	Soka saltoa	Ikastolan
	2.astea	11	Futbola	Larrotegin	Soka saltoa	Ikastolan
		13	Futbola	Larrotegin	Soka saltoa	Ikastolan
	3.astea	18	Soka saltoa	Ikastolan	Futbola	Larrotegin
		20	Soka saltoa	Ikastolan	Futbola	Larrotegin
	4.astea	25	Soka saltoa	Ikastolan	Futbola	Larrotegin
		27	Soka saltoa	Ikastolan	Futbola	Larrotegin
ABENDUA	1.astea	2	Biodantza	Ikastolan	Herri-kirola	Herri Eskolan
		4	Biodantza	Ikastolan	Herri-kirola	Herri Eskolan
	2.astea	9	Biodantza	Ikastolan	Herri-kirola	Herri Eskolan
		11	Saskibaloia	Ikastolan	Boleibola	Kiroldegian
	3.astea	16	Saskibaloia	Ikastolan	Boleibola	Kiroldegian
		18	Saskibaloia	Ikastolan	Boleibola	Kiroldegian
URTARRILA	1.astea	6	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		8	Saskibaloia	Ikastolan	Boleibola	Kiroldegian
	2.astea	13	Herri-kirola	Herri Eskolan	Biodantza	Ikastolan
		15	Herri-kirola	Herri Eskolan	Biodantza	Ikastolan
	3.astea	20	Herri-kirola	Herri Eskolan	Biodantza	Ikastolan
		22	Boleibola	Kiroldegian	Saskibaloia	Ikastolan
	4.astea	27	Boleibola	Kiroldegian	Saskibaloia	Ikastolan
		29	Boleibola	Kiroldegian	Saskibaloia	Ikastolan

LEK PROGRAMA 2025-2026

LH 3 maila

2. Lau-hilabetea			LH 3A taldea		LH 3B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.astea	3	Boleibola	Kiroldegian	Saskibaloia	Ikastolan
		5	Igeriketa	Trinketen	Hokeia	Ikastolan
	2.astea	10	Igeriketa	Trinketen	Hokeia	Ikastolan
		12	Igeriketa	Trinketen	Hokeia	Ikastolan
	3.astea	17	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		19	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
	4.astea	24	Igeriketa	Trinketen	Hokeia	Ikastolan
		26	Hokeia	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
MARTXOA	1.astea	3	Hokeia	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		5	Hokeia	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
	2.astea	10	Hokeia	Ikastolan	Igeriketa	Trinketen
		12	Zirkoa	Ikastolan	Errugbia	Herri Eskola IT
	3.astea	17	Zirkoa	Ikastolan	Errugbia	Herri Eskola IT
		19	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
	4.astea	24	Zirkoa	Ikastolan	Errugbia	Herri Eskola IT
		26	Zirkoa	Ikastolan	Errugbia	Herri Eskola IT
APIRILA	1.astea	14	Errugbia	Herri Eskola IT	Zirkoa	Ikastolan
		16	Errugbia	Herri Eskola IT	Zirkoa	Ikastolan
	2.astea	21	Errugbia	Herri Eskola IT	Zirkoa	Ikastolan
		23	Errugbia	Herri Eskola IT	Zirkoa	Ikastolan
	5.astea	28	Orientazioa	Plazan	Bigsup	San Pedropean
		30	Orientazioa	Plazan	Bigsup	San Pedropean
MAIATZA	1.astea	5	Orientazioa	Plazan	Bigsup	San Pedropean
		7	Orientazioa	Plazan	Bigsup	San Pedropean
	2.astea	12	Bigsup	San Pedropean	Orientazioa	Plazan
		14	Bigsup	San Pedropean	Orientazioa	Plazan
	3.astea	19	Bigsup	San Pedropean	Orientazioa	Plazan
		21	Bigsup	San Pedropean	Orientazioa	Plazan
	4.astea	26	Hondartza jolasak	Plazan	Hondartza jolasak	Plazan
		28	Hondartza jolasak	Plazan	Hondartza jolasak	Plazan

LEK PROGRAMA 2025-2026

LH 4 maila

1. Lau-hilabetea			LH 4A taldea		LH 4B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
URRIA	1.astea	Ira 30	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		2	Elkar ezagutza jolasak	Herri Eskolan	Elkar ezagutza jolasak	Herri Eskolan
	2.astea	7	Surf	Karraspion	Piragua	San Pedropean
		9	Surf	Karraspion	Piragua	San Pedropean
	3.astea	14	Surf	Karraspion	Piragua	San Pedropean
		16	Piragua	San Pedropean	Surf	Karraspion
	4.astea	21	Piragua	San Pedropean	Surf	Karraspion
		23	Piragua	San Pedropean	Surf	Karraspion
	5.astea	28	Atletismoa	Larrotegin	Boleibola	Kiroldegian
		30	Atletismoa	Larrotegin	Boleibola	Kiroldegian
AZAROA	1.astea	4	Atletismoa	Larrotegin	Boleibola	Kiroldegian
		6	Atletismoa	Larrotegin	Boleibola	Kiroldegian
	2.astea	11	Atletismoa	Larrotegin	Boleibola	Kiroldegian
		13	Atletismoa	Larrotegin	Boleibola	Kiroldegian
	3.astea	18	Boleibola	Kiroldegian	Atletismoa	Larrotegin
		20	Boleibola	Kiroldegian	Atletismoa	Larrotegin
	4.astea	25	Boleibola	Kiroldegian	Atletismoa	Larrotegin
		27	Boleibola	Kiroldegian	Atletismoa	Larrotegin
ABENDUA	1.astea	2	Boleibola	Kiroldegian	Atletismoa	Larrotegin
		4	Boleibola	Kiroldegian	Atletismoa	Larrotegin
	2.astea	9	Igeriketa	Trinketen	Euskal pilota	Kiroldegian
		11	Igeriketa	Trinketen	Euskal pilota	Kiroldegian
	3.astea	16	Igeriketa	Trinketen	Euskal pilota	Kiroldegian
		18	Igeriketa	Trinketen	Euskal pilota	Kiroldegian
URTARRILA	1.astea	6	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		8	Igeriketa	Trinketen	Euskal pilota	Kiroldegian
	2.astea	13	Igeriketa	Trinketen	Euskal pilota	Kiroldegian
		15	Euskal pilota	Kiroldegian	Igeriketa	Trinketen
	3.astea	20	Euskal pilota	Kiroldegian	Igeriketa	Trinketen
		22	Euskal pilota	Kiroldegian	Igeriketa	Trinketen
	4.astea	27	Euskal pilota	Kiroldegian	Igeriketa	Trinketen
		29	Euskal pilota	Kiroldegian	Igeriketa	Trinketen

LEK PROGRAMA 2025-2026

LH 4 maila

2. Lau-hilabetea			LH 4A taldea		LH 4B taldea	
			Monitoreak:		Monitoreak:	
			Jarduera	Non jaso	Jarduera	Non jaso
OTSAILA	1.astea	3	Euskal pilota	Kiroldegian	Igeriketa	Trinketen
		5	Futbola	Larrotegin	Xake	Kultur Etxean
	2.astea	10	Futbola	Larrotegin	Xake	Kultur Etxean
		12	Futbola	Larrotegin	Xake	Kultur Etxean
	3.astea	17	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
		19	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
	4.astea	24	Futbola	Larrotegin	Skate	Herri Eskolan
		26	Futbola	Larrotegin	Skate	Herri Eskolan
MARTXOA	1.astea	3	Futbola	Larrotegin	Skate	Herri Eskolan
		5	Xake	Kultur Etxean	Futbola	Larrotegin
	2.astea	10	Xake	Kultur Etxean	Futbola	Larrotegin
		12	Xake	Kultur Etxean	Futbola	Larrotegin
	3.astea	17	Skate	Herri Eskolan	Futbola	Larrotegin
		19	JAI EGUNA		JAI EGUNA	
	4.astea	24	Skate	Herri Eskolan	Futbola	Larrotegin
		26	Skate	Herri Eskolan	Futbola	Larrotegin
APIRILA	1.astea	14	Skate	Herri Eskolan	Futbola	Larrotegin
		16	Arrauna	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
	2.astea	21	Arrauna	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
		23	Arrauna	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
	5.astea	28	Arrauna	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
		30	Arrauna	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
MAIATZA	1.astea	5	Arrauna	Plazan	Bizikleta	Herri Eskolan
		7	Bizikleta	Herri Eskolan	Arrauna	Plazan
	2.astea	12	Bizikleta	Herri Eskolan	Arrauna	Plazan
		14	Bizikleta	Herri Eskolan	Arrauna	Plazan
	3.astea	19	Bizikleta	Herri Eskolan	Arrauna	Plazan
		21	Bizikleta	Herri Eskolan	Arrauna	Plazan
	4.astea	26	Bizikleta	Herri Eskolan	Arrauna	Plazan
		28	Hondartza	Plazan	Hondartza	Plazan

3. HERRI-UDALEKUAK (2025 EKAINA-ABUZTUA)

Bigarreniz, 2025eko udan LEK eskola-kirolaren barruan Herri Udalekuak antolatu ditugu, uda garaian herriko nahiz kanpoko umeek aisialdi osasuntsuaz gozatzeko aukera izan dezaten. Ekimen honen helburua haurrei oporraldian aisialdi hezitzaile eta parte-hartzailea eskaintzea da, kirola, jolasak eta talde-dinamikak uztartuz. Gainera, udalekuek onura ugari eskaintzen dituzte haurren garapen pertsonalean zein sozialean; besteak beste, trebetasun sozialak lantzeko aukera, autonomia eta independentzia sustatzea, eta natur-guneetan bizikidetzaren esperientziak bizitzeko aukera. Halaber, umeen konfidantza indartzen laguntzen dute, balioak eskuratu eta sendotzeko testuinguru egokia sortzen dute, eta pixkanaka gurasoekiko desatxikimendua modu osasuntsuan garatzen laguntzen dute.

2025eko herri udalekuak ekainaren 23an hasi, eta abuztuaren 1ean bukatu dira, astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik 14:00etara, guztira sei astez. Parte hartzaileak hiru taldetan bereizten ditugu adin-tartearen arabera: LH1-2, LH3-4 eta LH5-6-DBH1. Antolaketa horri esker, adin bakoitzaren behar eta interesetara egokitutako jarduerak proposatzen dira. Horrela, astero adin-talde bakoitzarentzat programa espezifiko bat prestatzen dugu, jarduera hezitzaile, ludiko eta kirol-jardueren bidez parte-hartzaile guztien parte-hartzea eta motibazioa sustatzeko



2024ko uda aurretik, udaleku hauen formatua Azkue Natura Ikastolaren baitan antolatzen zen. Udalak hala eskatuta, ekimena herrira zabaltzea erabaki zen, herriko zein kanpoko haur guztiek udaleku hauetaz baliatzeko aukera izan zezaten. Hori horrela, trantsizio prozesuan zenbait baldintza mantentzea adostu zen; besteak beste, urteetan zehar udalekuak antolatzen aritu den lan-taldea mantentzea, proiektuaren jarraipena, esperientzia eta kalitatea bermatzeko helburuarekin.

Herri Udalekuak antolatzeko prozesua antzekoa da urtero. Koordinatzailea martxoan hasten da udako aisialdi osasungarriak eskatzen duen antolaketa-lan guztia prestatzen. Epe horretatik ekainera bitartean egindako lan-orduak, lan-ordutegi arruntetik kanpoko jardun gisa ordaintzen dira. Hurrengo urtera begira, egoera hori formalizatu egingo da, eta ordu horiek eskola-kiroleko kontratura gehituko dira.

Hasierako fase horretan programazioa, egutegia eta kirol-taldeekin zein enpresekin koordinazioa zehazten dira. Era berean, beharrezkoa denean, aurreko urteko memoria aztertzen da, etengabeko hobekuntzaren bidez gero eta kalitate handiagoko udalekuak eskaintzeko helburuarekin.



Ekainean herri-udalekuak abian jarri aurretik, apirilaren amaieran aurkezpen-saioa egiten da Azkue Aretoan; bertan, programaren ezaugarriak eta udalekuen nondik norakoak azaltzen zaizkie gurasoei eta senideei, izen-emate epea ireki aurretik. Oro har, izen-emate epea maiatzean irekitzen da. Lehentasuna dute eskola-kiroleko ikasleek eta Lekeition erroldatutakoek. Aste bakoitzeko programa bakoitzean 60 ikasle onartzen dira gehienez, 30eko bi taldetan banatuta, programaren jarraipen egokia bermatzeko. Une honetan, ez da posible ikasle kopuru handiagoa onartzea, antolakuntza-arazoak saihesteko. Nolanahi ere, plazak aste gutxi batzuetan soilik betetzen dira.

Lan-taldearen osaera jasotako ikasleen izen-emate kopuruaren arabera zehazten da. Hala ere, kontuan hartu behar da begiraleen %90 inguru urtean zehar eskola-kirolean lanean dauden monitorea direla. Horrek hainbat abantaila dakartza: herriko ikastetxeetako eta udalekuetako partaide gehienak ezagutzen dituzte, LEK eskola-kirola proiektuaren

funtzionamendua barneratuta daukate, ondo ezagutzen dituzte begiraleen betebeharrak, eta urte osoan zehar lan egiteko aukera bermatzen zaie. LEKeko begiraleez gain, langile gehiago kontratatu behar direnean, lan-poltsan jasotako curriculumak aztertzen dira hautaketa egiteko. Halaber, udan praktikak egin nahi dituzten ikasleek ere euren eskaerak bidaltzen dituzte behin deialdia irekitzen denean.

Herri Udalekuetan parte hartzeko izena ematen dutenean, plaza erreserbatzeko ordainketa egin behar da. Jarraian dagoen taulan agertzen dira laburbilduta prezioak, baita herritarrei zein LEK ikasleei bi seme-alabatik gora izateagatik eskaintzen zaizkien deskontuak.

TXANDAK	*LEK IKASLEAK *HERRIKO IKASLEAK *LEKEITION ERROLDATUTAKOAK	HERRITARRAK (Baita herriko ikasleentzako edo LEKeko partaideentzako ere)	GAINERAKOAK
1	80€	<p>*Bigarren seme-alabak %10eko deskontua izango du.</p> <p>Adibidez: <i>Lehenengo seme-alaba hiru txandatan joango da Herri Udalekuetara (235€)</i> <i>Bigarrena, berriz, bi astez (155€ %10 = 15,5€ko deskontua)</i> <i>Ordaindu beharrekoa:</i> <i>235€ (1. seme-alaba) + 139,5€ (2. seme-alaba) = 374,50€</i></p> <p>*Familia bereko hiru seme-alabek izena emanez gero, hirugarrenari %30eko deskontua aplikatuko zaio.</p>	90€
2	155€		175€
3	235€		265€
4	310€		350€
5	390€		440€
6	465€		525€



3.1 UDALEKUEN PROGRAMA

Herri Udalekuetako programazioa hiru adin-taldetan banatzen da, eta astero programa desberdinak prestatzen dira talde bakoitzaren behar eta interesetara egokituta. Jardueren garapenean, Lekeitioko hainbat kirol-elkartek, eragilek eta enpresek hartzen dute parte.

 <h2 style="text-align: center;">LH1-2 PROGRAMAZIOA</h2> <p style="text-align: center;">Programa hau behin-behinekoa da, aldaketak jasan ditzake.</p>					
TXANDAK	AL	AS	AZ	OG	OR
1.	23 TELLERIA OKINDEGIA 	24 ESKULANAK SORMENA DANTZA 	25 TXANGOIA MENDEXARA UR JOLASAK	26 BIZIKLETA HONDARTZA 	27 MASTERTXEF YOGA
2.	30 HONDARREZKO ESKULTURA TAILERRA	1 SAN PEDRO BALTZA JAIALDIA	2 TXANGOIA	3 ARRAUN 	4 
3.	7 UR JOLASAK GYNKANA	8 	9 ZINE TAILERRA 	10 OLINPIADAK 	11 ESKULANAK SORMENA DANTZA
4.	14 SUKALDARITZA TAILERRA	15 OLINPIADAK 	16 BIZIKLETA eta ESKULANAK 	17 ARRAUN 	18 EGUN PASA MENDEXAN
5.	21 HERRI KIROLAK	22 KULIXKA ITSASONTZIA	23 ITSASARGI MUSEOA	24 	25 JAI EGUNA
6.	28 	29 	30 ESKULANAK SORMENA DANTZA	31 JAI EGUNA	1 UDALEKU AMAIERAKO FESTA

 <h2 style="text-align: center;">LH3-4 PROGRAMAZIOA</h2> <p style="text-align: center;">Programa hau behin-behinekoa da, aldaketak jasan ditzake.</p>					
TXANDAK	AL	AS	AZ	OG	OR
1.	23 ITSASARGI MUSEOA TRINKETE	24 ARRAUN 	25  TELLERIA OKINDEGIA	26 SUKALDARITZA TAILERRA	27 EGUN PASA
2.	30 	1 HONDARREZKO ESKULTURA TAILERRA	2 BIZIKLETA JOLASAK 	3 TELLERIA OKINDEGIA ZINE TAILERRA	4 UR JOLASAK GYNKANA
3.	LEKITOKO DEABRUAK 	8 OLINPIADAK 	9 	10 ARRAUN 	11 SUKALDARITZA TAILERRA
4.	14 SUKALDARITZA TAILERRA	15 BIZIKLETA JOLASAK 	16 OLINPIADAK 	17 	18 
5.	21 BIGSUP 	22 EGUN PASA IRTEERA	23 PIRAGUA	24 PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIA	25 JAI EGUNA
6.	28 TRUKEEN JOLASA ERRONKAK	29 KULIXKA ITSASONTZIA HONDARTZA	30 	31 JAI EGUNA	1 UDALEKU AMAIERAKO FESTA

 <h2 style="text-align: center;">LH5-6-DBH1 PROGRAMAZIOA</h2> <p style="text-align: center;">Programa hau behin-behinekoa da, aldaketak jasan ditzake.</p>					
TXANDAK	AL	AS	AZ	OG	OR
1.	23 SUKALDARITZA TAILERRA	24 XAKE ESKULANAK 	25 	26 ARRAUN 	27 KALEKA HONDARTZA 
2.	30 ZINE TAILERRA 	1 HONDARREZKO ESKULTURA TAILERRA PIRAGUA	2 EGUN PASA ELANTXOBEN ARRANTZA	3 GINKANA KONKIS	4 SUKALDARITZA HERRIAN JOLASAK
3.	7 OLINPIADAK 	8 SUKALDARITZA TAILERRA	9 LEKITOKO DEABRUAK 	10 BIZIKLETA 	11 
4.	14 LEHEN SOROSPENAK BREATHWORK	15 PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIA	16 TRUKEEN JOLASA ERRONKAK	17 OLINPIADAK 	18 EGUN PASA IRTEERA
5.	21 	22 ARRAUN 	23 EGUN PASA IRTEERA	24 BIZIKLETA 	25 JAI EGUNA
6.	28 SUKALDARITZA TAILERRA	29 	30 KULIXKA ITSASONTZIA HONDARTZA	31 JAI EGUNA	1 UDALEKU AMAIERAKO FESTA

2025ean, gainera, programazioan berrikuntza batzuk izan dira. Lehen aldiz, bizikleta saioak Amandarri Triatloi taldeko kideek prestatu eta gidatu dituzte. Xakeko saioa, berriz, Jokin Erdozia Xake Taldeko kideek dinamizatu dute. Berritasun modura ere, Musikaia Musika Eskolak musika tailer bat eskaini du; jarduera honek arrakasta handia izan du parte-hartzaileen artean, oso ondo antolatuta egoteaz gain, interes handia piztu duelako.

Aurreko urteetan udalekuetan parte hartu izan duten beste hainbat eragilek ere gurekin jarraitu dute aurtan. Besteak beste, Mendexa Abentura Park, Leaktibai, Itsasargi Museoa, Kulixka itsasontzia, Telleria Okindegia, Arragua, Isuntza Arraun Elkartea, KALEKA, Lekeitioko Zinemazaleak (zinema tailerrarekin), Tximista Atletismo Taldea, Lekittoko Deabruak (tailerrarekin), Gure Zirkua eta LEARTADI (lehen sorospenen saioarekin). Eragile hauen parte-hartzeari esker, udalekuetako programazioa askotarikoa, aberatsa eta herriko eragileekin lotura estuan garatua izan da.



Hurrengo ikasturteari begira, beharrezkotzat jotzen da ekintzen prezioa egokitzea. Izan ere, orain arte Azkue Natura Ikastolako udalekuetako eredia jarraitzen da: parte hartzen duen ikasle bakoitzeko 5 euro ordaintzen zaizkio dagokion kirol-taldeari, eta, ondoren, taldeak bere gain hartzen du begiraleen ordainsaria.

Hala ere, badira salbuespenak; esaterako, Isuntza Arraun Elkarteak Herri Udalekuetarako ikasleko 10 euro kobratzen ditu. Horrek desoreka bat sortzen du, eta, ondorioz, prezioen irizpideak bateratzeko beharra agerian geratzen da. Bestalde, kontuan hartu behar da ikasturtean zehar kirol-talde bereberiei monitore bakoitzeko 12 euro ordaintzen zaiela; beraz, alde nabarmena dago neguko eta udako ordainsarien artean. Horrenbestez, hurrengo udarako arautu beharreko alderdi nagusietako bat prezio-politika bateratua ezartzea izango dela aurreikusten da.

3.2 KOORDINAZIOA

Aurretik aipatutako arrazoiengatik, Azkue Ikastolako udalekuetan lanean aritzen ziren bi koordinatzaileak mantendu ziren, eta 2024an antzeko lan-funtzioak bete zituzten biek. 2025ean, ordea, antolaketa hori aldatu egin da, bi koordinatzaile mantentzearen kostua handiegia zelako eta koordinatzaile bakarrarekin nahikoa izan zitekeela baloratu zelako. Horrekin batera, koordinatzaile-laguntzaile baten figura ezarri da, goizeko lehen tartean laguntza emateko. Hala, 2025eko udan koordinatzaile bakarra egon da udalekuetan, eta koordinatzaile-laguntzaile bat, goizeko 9:00etatik 10:00etara koordinazio-lanetan laguntzen zuena, eta ondoren ere beharrezko zereginetan laguntza eskaintzen zuena.

Asteko programako informazioa partekatzeko, txanda eta programa bakoitzeko WhatsApp taldeak sortu genituen. Aurten, lehen aldiz, PDF bidezko oharra bidaltzea erabiki dugu; bertan, laburbilduta agertzen dira egunero ekarri beharreko materialak, argibideak eta programaren xehetasun nagusiak. Esperientzia honen arabera, formatua oso baliagarria izan da, aurreko urteekin alderatuta, gurasoek egin ditzaketan galdera asko saihestu baitira, eta komunikazioa argiago eta eraginkorragoa bihurtu delako.



HERRI UDALEKUAK
UDA BETE BIZIPEN

Eskola kirol **LEKEITIO**
gure nortasunetik

Ongi etorri Herri Udalekuetara!
Dokumentu honetan aurkituko duzue beharrezko informazio guztia: programa, ordutegia, ekarri beharrekoak...

ORDUTEGIA
10:00-14:00

SARRERA-IRTEERA
Independenzia plazako kiosko aurrean

OHARRAK

- Alergiak direla eta, ezin da ez kiwirik, ez fruitu lehorrik ekarri haimaiketakorako.
- Programak aldaketak jasan ditzake eguraldiaren arabera; aldaketa guztiak aurretiaz jakinaraziko dizkizuegu WhatsApp bidez.
- Egunero arropa erosoak ekartzea gomendatzen da.
- Herri Udalekuetako egonaldia luzatu nahi izanez gero, jar zaitezte koordinatzailearekin harremanetan.

	ASTELEHENA UZT 7	ASTEARTEA UZT 8	ASTEAZKENA UZT 9	OSTEGUNA UZT 10	OSTIRALA UZT 11
PROGRAMA	LEKITOKO DEABRUAK 	OLINPIADAK 		ARRAUNA 	SUKALDARITZA TAILERRA
EKARRI BEHARREKOAK	<ul style="list-style-type: none"> HAMAIKETAKOA UR BOTILA ARROPA EROSOAK TOALLA BAINUJANTZIA EGUZKITAKO KREMA ETXETIK EMANDA. 	<ul style="list-style-type: none"> HAMAIKETAKOA UR BOTILA ARROPA EROSOAK TOALLA BAINUJANTZIA EGUZKITAKO KREMA ETXETIK EMANDA. 	<ul style="list-style-type: none"> HAMAIKETAKOA UR BOTILA ARROPA EROSOAK TOALLA BAINUJANTZIA EGUZKITAKO KREMA ETXETIK EMANDA. HERRI UDALEKUETAKO KAMISETA 	<ul style="list-style-type: none"> HAMAIKETAKOA UR BOTILA ARROPA EROSOAK TOALLA BAINUJANTZIA EGUZKITAKO KREMA ETXETIK EMANDA 	<ul style="list-style-type: none"> HAMAIKETAKOA UR BOTILA ARROPA EROSOAK TOALLA BAINUJANTZIA EGUZKITAKO KREMA ETXETIK EMANDA. AMANTALA 

Zalantzaren bat izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan!
ESKERRIK ASKO

+34 688 775 124 (Miren)

lekeitiokoeskolakirola@gmail.com

















eta askoz gehiago...

Gainera, aurten lehen aldiz gure bulegoa eta material-biltokia herriko plazan bertan egon da; hau da, eguneroko sarrerak nahiz irteerak egiten diren tokian. Honek koordinatzaileen lan-karga nabarmen arindu du, alde batetik bestera joan-etorriak saihestuz. Gurasoek nahiz begiraleek ere asko eskertu dute aldaketa hau.

Begiraleekin nahiz praktikatzaileekin koordinazioa oso erraza izan da, batez ere, ikasturte osoan zehar eskola-kirola proiektuan lanean dabiltzan begiraleak izan direlako. Hala ere, egunero 9:30ean batu gara, udalekuak hasi orduko orduerdi horretan beharrezko materiala prestatzeko, eta, azken orduko aldaketarik egonez gero, ahalik eta hoberen antolatzeko. Urtero legez, Herri Udalekuak hasi aurretik lan-talde osoa batu gara, bai praktikatzaileak, bai begiraleak, eta, batzar horretan, hurrengo asteetan zehar bakoitzak beregan hartu beharko dituen betebeharrak errepasatu ditugu. Egia esan, urtero-urtero begiraleek egiten duten lana bikaina da, eta hori argi ikusten da gurasoen balorazio-galdetegietan.

3.3 PARTE-HARTZE DATUAK

Herri Udalekuetako ikasleen partaidetza datuak esanguratsuak izan dira aurten ere. Maiatzean izena ematearekin batera egiten da ordainketa, eta une horretan erreserbatzen da plaza. Ondoren, tokirik balego, parte-hartzaileek egonaldia luzatzeko aukera izan dute, aurreko astean koordinatzaileari jakinarazita.

Azken bi asteetan, hala ere, ikasle kopuruaren beherakada nabaria izan da. Testuingurua kontuan hartuta, aste horietan jai-egunak egoteak eragina izan duela ondoriozta daiteke; izan ere, guraso askok adierazi dutenez, data horietan oporrak hartzeko joera dute.

Jarraian daude parte-hartzaileen datuak, adin-tarteka banatuta. Ikus daitekeenez, parte-hartzaileen ia erdia Lekeition erroldatutakoak edo LEK eskola kiroleko ikasleak izan dira, eta gainerakoak udatiarrak. Azpimarratzekoa da, gainera, aurten lehen aldiz DBH1 mailako gazteei ere programa eskaini zaiela.

LH 1-2 MAILAK						
GUZTIRA	1. ASTEA	2. ASTEA	3. ASTEA	4. ASTEA	5. ASTEA	6. ASTEA
112 ikasle	47 ikasle	51 ikasle	60 ikasle	46 ikasle	34 ikasle	13 ikasle
NEKAK	MUTILAK	HERRIKOA	UDATIARRA INGURUKOAK	EGOERA ZAURGARRIAN	HEZITZAILEA BEHAR	
54	58	61	51	2	2	

LH 3-4 MAILAK						
GUZTIRA	1. ASTEA	2. ASTEA	3. ASTEA	4. ASTEA	5. ASTEA	6. ASTEA
100 ikasle	38 ikasle	50 ikasle	51 ikasle	48 ikasle	36 ikasle	16 ikasle
NEKAK	MUTILAK	HERRIKOA	UDATIARRA INGURUKOAK	EGOERA ZAURGARRIAN	HEZITZAILEA BEHAR	
51	49	45	55	4	1	

LH 5-6 / DBH 1 MAILAK						
GUZTIRA	1. ASTEA	2. ASTEA	3. ASTEA	4. ASTEA	5. ASTEA	6. ASTEA
82 ikasle	40 ikasle	35 ikasle	40 ikasle	30 ikasle	30 ikasle	14 ikasle
NEKAK	MUTILAK	HERRIKOA	UDATIARRA INGURUKOAK	EGOERA ZAURGARRIAN	HEZITZAILEA BEHAR	
56	26	43	39	2	0	

Egoera zaugarrian dauden ikasleen kasuan, kuota LEK eskola kirola elkarteak hartu du bere gain, guztiek parte hartzeko eskubidea bermatzeko helburuarekin. Sei asteko eskaintza izanik, gehienez %50eko dirulaguntza eman da, hau da, hiru astera arte, bakoitzaren beharren arabera. Aurten, 9 familia izan dira guztira.

Aniztasun funtzionala duten hiru ikaslek parte hartu dute aurten. Horietako birekin Haszteneko begiralea egon da, eta haien beharretara egokitutako programa eskaini zaie (astean bi egun). Hirugarren kasuan, berriz, udalekuetako begirale taldeko kideek eman diote arreta.



3.4 BALORAZIOAK

Astero-astero, ostiraletan, Herri Udalekuetako guraso-taldeari galdetegi bat bidaltzen diogu, udalekuetan hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko eta beraien iritzia ezagutzeko, urtetik urtera hobetzen jarraitzeko asmoz. Erantzun duten familiak parte-hartzaileen erdia baino ez badira ere, oso emaitza positiboak jaso ditugu. Parte-hartzaile gehienek oso esperientzia ona izan dute udalekuetan, bai taldekideekin, bai begiraleekin. Gainera, programako ekintzak adin-tarte bakoitzerako egokiak izan direla azpimarratu dute.

Behin Herri udalekuak bukatutakoan, jasotako iritziak eta proposamenak oso baliagarriak dira hurrengo urteko programazioa hobetzeko. Gurasoengandik nahiz begiraleengandik jasotako proposamen guztiak aztertu, eta hurrengo urtean martxan jartzeko gordetzen ditugu.

Asko izan dira Herri Udalekuetako adin-tartea zabaltzeko eskaera egin dutenak, bai HHko haurrei, bai DBHko ikasleei parte hartzeko aukera emateko asmoz. Iaz, udalekuak hasi aurretik, 9:00etatik 10:00etara bitartean zaintza-zerbitzua eskaintzen zen; hala ere, aurten zerbitzu hori ez eskaintzea erabaki zen, koordinatzaileen lan-karga nabarmen handitzen zuelako. Horren harira, familia batek zerbitzu hori berriz martxan jartzea proposatu du.

Bestalde, ez da maiz errepikatu den bestelako proposamenik jaso. Zenbait kasutan, eguraldi txarragatik bertan behera utzitako ekintzen kostua itzultzearen aukera aipatu da; hala ere, ez da bidezkoztat jo.


Halaber, azpimarratzekoa da aurten berrikuntza gisa sartu den Musikaia Musika Eskola-rekin elkarlanean egindako tailerrak (LH1 eta LH2ko programaren barruan) harrera oso ona izan duela. Hori dela eta, parte-hartzaile askok tailer hori behin baino gehiagotan errepikatzeko proposamena egin dute.

Bestetik, urte asko daramatzagu LEAKTIBAI enpresarekin elkarlanean; hala ere, maiz, eguraldi txarra edo itsasoaren baldintzak direla medio, aurreikusitako jarduerak aldatu behar izaten dira. Egoera horietan, azken unean koordinazioa egitea zaila izaten da sarritan. Hori dela eta, 2026ko udari begira, ezinbestekotzat jotzen da programa zehaztu aurretik elkarlanerako metodologia argiago eta egonkorrago bat adostea.

Jarraian agertzen diren grafikoetan nahiz irudietan ikus daitezke galdetegian jasotako datuak:

1. Adierazi zure seme/alabaren maila. *Indique el curso de su hija/o.


51 erantzun



2. Nire seme/alaba pozik joan da Herri Udalekuetara. *Mi hija/o ha asistido contento a Herri Udalekuak.

[Kopiatu diagrama](#)


51 erantzun



3. Proposatutako jolas eta kiroletan gustora ibili da. *Mi hija/o ha participado motivado en los juegos y deportes programados.

 [Kopiatu diagrama](#)


51 erantzun



4. Bere taldeko kideekin harreman ona izan du. *Mi hija/o ha tenido una buena relación con los integrantes de su grupo de deporte escolar.

 [Kopiatu diagrama](#)


51 erantzun



5. Monitore hezitzaileekin gustora ibili da (hurbilak izan dira eta laguntza behar izan duenean eskaini diote). *Mi hijo/a ha estado a gusto con los monitores educadores (han sido cercanos y le han ofrecido ayuda cuando lo ha necesitado).

 [Kopiatu diagrama](#)


18 erantzun



6. Herri udalekuetako programa erakargarria eta egokia izan da adin hauetako umeentzat. *Ha sido un programa herri udaleku atractivo y adecuado para niñas/os de estas edades.

 [Kopiatu diagrama](#)


30 erantzun



7. Lagun edo senide bati Herri Udalekuetan izena ematera animatuko zenuke. *Animarías a algún amigo o familiar a apuntarse a Herri Udalekuak.

[Kopiatu diagrama](#)


30 erantzun



8. Herri udalekuetako informazioa bidaltzeko eta gertaeren inguruan hitz egiteko gurasoekin izandako komunikazioa eta harremana egokia izan da (whatsapp bidez, telefono bidez, aurrez aurre). *La comunicación con las familias (vía whatsapp, teléfono o presencial) para enviar información de Herri Udalekuak o para hablar de algún problema que haya surgido ha sido adecuada.

[Kopiatu diagrama](#)


18 erantzun



9. Gustatuko litzazuke gabonetan edo aste santuetan beste udaleku batzuk sortzea? *¿Le gustaría crear otras colonias en navidades o semanas santas?

[Kopiatu diagrama](#)

50 erantzun



10. Proposamenik, hobekuntzarik datorren urtera begira? * ¿Alguna propuesta, alguna mejora de cara al año que viene?

11 erantzun

Goizetako zaintza jartzea. HH5eko umeek ere parte hartzea

HH etapako umeentzako zezoer

Gure semea pozik ibili da.

Udaleku para chavales de la ESO

Wassap taldean antolakuntzal bakarrik idatzi dezala eta beste guztiak pribautik.

HH 5 urteko umeentzako ere zerbait egotea, ondo legoke.

Bikain egon da!!

DBH2 jarraitzes

Hh4 e Hh5 eko taldiak sortzea

11. Beste edozer aipatzeko edo adierazteko erabili tarte hau. *Utilice este espacio para comentar o expresar sensaciones y propuestas.

8 erantzun

Oso pozik gaoz biok

Itzalak zarie! Zorionak!

Itzalak zarie! Unaik bixikletan ikasi dau! Zorionak danori eta eskerrik asko! Batez be Deieneri!

Oso ondo antolatua egon direla uste dut, jarduera anitzak eta interesekosk. Horri esker semea beste aste bat luzatzea animatu da nahiz eta hasierako asmoa aste bakarra egitea izan. Bigarren astean gustorago ikusten dut, harremana zerbait gehiago zabaldu den heinean. Hori hasieratik nolabait gehiago bultzatzea ondo legoke, elkar ezagutzeko dinamikak. Era guztietara, esandakoa, oso ondo antolatua, herriko baliabide guztiak ezagutu eta disfrutatzeke eta, nola ez, giro euskaldunean. Mila esker.

Todo muy bien y a gusto

HH 4 eta 5 urteko umeentzat ere udalekuak egotea, aproposa izango zen. Ekintza sinpleagoekin pozik ibiliko zirela esango nuke. Zenbait adibide: (paseoak, eraikuntza tailerrak, sormen tailerrak, psikogela, manipulazioa, igeriketa apur bat, zirku tailerrak, dantza tailerrak, ekintza sensorialak,...)

Mila esker umiak oso pozik joan dira eta ederto pasa dabe

Merkeagoak izatea, agian ekintza batzuk kenduta merkeagoak izan daitezke 😊 azken finean gure seme-alabak entretenituta edukitzearekin nahikoa bai da. HHko ikasleentzat aukera ematea.

Beste urte batez zoragarria izan da zuen udalekuen antolakutza, Zorionak eta mila esker!

Muchas gracias, cada año lo organizáis si cabe mejor

Aurten hasieratik ezarrita egon da nora eraman 10etan umeak eta non jaso 14.00etan. Era horretan, gu behintzat, hobeto antolatu ahal izan gara. Eskerrik asko!

Eskerrak eman nahi dizkizuet zuen lanagatik. Ikaragarria izan da esperoentzia eta antolakuntza!!! Zorionak!!!

Begiraleen eta arduradunen jarrera et aumeekin izandako harremana ezin hobea. Zorionak ekipo!

Primeran egon dira. Eskerrik asko!!

Diplomak emitia..👏

Dana primeran! Eskerrik asko!!

Urtetik urtera hobeto antolatuta dagoela iruditzen zait
Adibidez, egunero leku berean geratu den aldaketa egokia iruditzen zait.
Eskerrik asko danagatik

Datorren urtean badoala dio nire alabak

zorionak

Eskerrik asko! Itzel pasatu deu

Zorionak

-

--

Plazerra gurea izen dela. Datorren urtean berriz!

.

Mila esker guztiagatik.

Oso gustora dabil!

Oso gustora ibili da

Mi hijo está encantado tanto con las actividades como compañeros como monitores! Es el 3 año q asiste.
Eskerrik asko Me da una tranquilidad enorme saber que va a gusto. Son un gran equipo!!!

Oso ondooo

Bikain!

Eskerrik asko!!

Umea oso gustora joan da ekintzetara. Ez dau jende asko ezagutzen Lekitxon eta jendea ezagutzen lagundu izena asko baloratu dot. Euren arteko harreman onak bultzatzen laguntzea da gehien ardua izan zaiguna. Mila esker.

Ondo

Asko gustatu zaizkion ekintzak, deabru beltzak, master chef, big sub, surf eta piraguak izan dira.

Muchas gracias a todos por toda la dedicación, esfuerzo y cariño con los niños y niñas





4. DIRU-KONTUAK

Hurrengoko tauletan laburbildu dira LEK programako eta Herri-Udalekuen diru gastuak, sarrerak eta finantzazioa datuak. Gastu handiena monitore-hezitzaile eta koordinatzailearen soldatak eraman dute berriro (%70). Sarreretan, berriz, Udalak diru sarreren %23 jarri du, eta gurasoen kuotek %67.



GASTUAK

KONTZEPTUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
Langileak	Koordinatzaileak eta hezitzaileak	89.486,87 €
Izaifer asesoria	Hileko nominak kudeatzeko lana (altak, bajak, nominak...)	1.800,48 €
Allianz segurua	LEK elkarteko aseguruak	853,40 €
Bizkaiko Foru Aldundia	Ogasunaren kitapena	483,47 €
Kirol jarduera bereziak	Kirol enprekin antolatutako jarduerak	25.975,29 €
Web orria	lekeitiokoeskolakirola.org gastua eta ikastolako teknikoa	589,21 €
Materiala	Kirol materiala jardueretarako eta jantziak	4.626,73 €
Autobusa	Topaketak eta udalekuak	2.710,00 €
Luntxak	Topaketetan eta azken egunekoak umeekin	922,91 €
GUZTIRA:	127.448,36 €	

SARRERAK

KONTZEPTUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
Familien kuotak	LEK eta Herri Udalekuak	84.837,50 €
Babesleak	Eika, Danobat, Burdinola, Caixabank, Cicautxo	3.500,00 €
Aldundia	Aldundiko eskola-kirol programan parte hartzearen	8.719,17 €
Udala	LEK elkarte eta Udalaren hitzarmena	30.000,00 €
SARRERAK:	127.056,67 €	

FINANTZIAZIO MAILA

FAMILIA KUOTAK	UDALA	BABESLEAK	ALDUNDIA
84.837,50€	30.000€	3.500€	8.719,17€
% 67	% 23	% 3	% 7

5. AURREKONTUA 2025-2026 DENBORALDIA

Aurrekontuari dagokionez, iazko antzekoa izango bada ere babesleen eta aldundiaren diru-laguntzak ezin dira aurretiaz zehatz aurreikusi. Hona hemen laburpen kuadroa:

GASTUAK

KONTZEPTUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
Langileak	Koordinatzaileak eta hezitzaileak	85.000,00 €
Izaifer asesoria	Hileko nominak kudeatzeko lana (altak, bajak, nominak...)	2.000,00 €
Allianz segurua	LEK elkarteko aseguruak	850,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia	Ogasunaren kitapena	700,00 €
Kirol jarduera bereziak	Kirol enpresekin antolatutako jarduerak	30.000,00 €
Autobusak	Asteburuko kirol topaketak eta Udalekuen irteerak	3.000,00 €
Luntxak	Topaketen luntxak, azken eguneko merendolak...	1.200,00 €
Materiala	Kirol materiala jardueretarako	3.000,00 €
Ekipazioa	Ume eta monitore jantziak	1.900,00 €
Bankua	Mantenua eta komisioak	350,00 €

GUZTIRA:

128.000,00 €

SARRERAK

KONTZEPTUA	AZALPENA	ZENBATEKOA
Familien kuotak	LEK eta Herri Udalekuak	85.000,00 €
Babesleak	Eika, Danobat, Burdinola, Caixanbank, Cicautxo	5.000,00 €
Aldundia	Aldundiko eskola-kirol programan parte hartzearen	8.000,00 €
Udala	LEK elkarte eta Udalaren hitzarmena	30.000,00 €

SARRERAK:

128.000,00 €